

**Ekarpen bat exonomastikari,  
Homeroren *Odisea* oinarri hartuta**

Una aportación a la exonomástica, partiendo  
de la *Odisea* de Homero

Une contribution à l'exonomastique, à partir  
de l'*Odyssée* d'Homère

A contribution to the study of exonyms, based  
on Homer's *Odyssey*

LOBERA, Gotzon  
Itzultzailea

Noiz jaso: 2017-03-27

Noiz onartua: 2017-07-17

*Euskera*. 2016, 61, 2. 665-741. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Lan honek exonomastikari egin nahi dio ekarpena. Izan ere, Euskaltzaindiak badihardu lanean hainbat arauen bidez hura finkatzeko. Ekarpene honek badu berezitasun bat: idazlan klasiko bat du oinarri, Homeroren *Odisea*. Hor ageri diren izenek hogeita zortzi gizaldiz iraun dute, eta hainbat kasutan gure eguneroko bizitzaren ikur bihurtu dira. Hori ez ezik, Euskaltzaindiak daborduko araututako izenei gehitzeko balio dezakete, eta horko izenak irakaskuntzako hainbat mailatako ikasgaietarako lagungarri izan daitezke.

**Hitz gakoak:** Exonomastika, Homero, *Odisea*, Odiseo, Grezia klasikoko izenak, Penelope.

Este trabajo quiere hacer una aportación a la exonomástica. Todo ello en el contexto de la labor que está desarrollando Euskaltzaindia en aras de fijar, mediante normas, la exonomástica en lo referente al euskera. Esta aportación tiene una peculiaridad: tiene como base un texto clásico, *La Odisea* de Homero. Los nombres que aparecen en dicha obra han permanecido durante veintiocho siglos y algunos de ellos se han convertido en símbolos de nuestra vida actual. Además de esto, podría valer para añadir a las listas de exónimos aprobados ya por la Academia, pudiéndose implantar de esta manera en los textos de enseñanza en euskera.

**Palabras clave:** Exonomástica, Homero, *Odisea*, Odiseo, nombres de la Grecia clásica, Penélope.

Ce travail est une contribution à l'exonomastique, dans le cadre du travail mené par Euskaltzaindia pour la fixation, par des normes, de l'exonomastique basque. Cette contribution a une particularité : elle a comme support un texte classique, *L'Odyssee* d'Homère. Les noms qui apparaissent dans cette œuvre existent depuis vingt-huit siècles et certains d'entre eux sont devenus des symboles de notre vie actuelle. De plus, ils peuvent être ajoutés à la liste des exonymes déjà approuvés par l'Académie et on pourrait les faire figurer dans les textes de l'enseignement en basque.

**Mots-clés :** Exonomastique, Homère, *Odyssee*, Odysseus, noms de la Grèce antique, Pénélope.

This paper sets out to make a contribution to the study of exonyms, in the context of the work being done by Euskaltzaindia with a view to standardising, through rules, exonyms in Basque. This contribution has one peculiarity: it takes as its basis a classical text, Homer's *Odyssey*. The names that appear in the *Odyssey* have persisted for twenty-eight centuries and some of them have acquired symbolic meaning in modern life. Moreover, it could serve for adding to the list of exonyms already approved by the Academy, and therefore be implemented in Basque teaching texts.

**Keywords:** Exonyms, Homer, *Odyssey*, Odysseus, Classical Greek names, Penelope.

## 1. Sarrera

Lan honen helburua xumea da, alegia, Euskaltzaindiak hainbat arairen bidez exonomastika finkatzeko egiten diharduen lanari nire ekarpen txoa egitea. Greziera klasikoko izenak euskaraz emateko irizpideak 76. arauan argitaratu ziren; betiere, badira beste hainbat arau exonomastikaren esparrukoak, bai beste alfabeto batzuetatik euskarara egin beharreko transliterazio-arauak emateko, bai kanpoko leku-izenek dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak emateko, besteak beste.

Eta zein da lan honen abiaburua? Bada, aita Santi Onaindia Baseta amototar karmeldarrak euskaraz 1985. urtean argitaratu zuen *Odisea* liburua. Ezeri ekin orduko, argi laga nahi dut saiakeratxo honetan ez dudala argitalpen haren itzulpen-lanari buruz jardungo<sup>1</sup>, ezpada liburu horretan euskaraz ageri diren greziera klasikoko leku-izenen, izen historikoen eta pertsonaia mitologikoen euskarazko formak finkatzen ahaleginduko naiz.

Esan behar da, 29 urte lehenago, 1956an, aita Gaizka Barandiaran Balantzategi oñatiar jesulagunak *Iliada* zeukala itzuli eta argitaratua *Iliasena* izenburuarekin. Bego hemen nire aitordpena langile porrokatu biontzat; izan ere, haiei esker, aukera izan dugu euskaldunok Homeroren lanik handienak euskaraz irakurri ahal izateko.

Idazlan honen amaieran azalduko den bibliografian ikusi ahal izango da zeintzuk diren greziera klasikoak, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez erabili ditudan *Odisearen* argitalpenak, artikulu hau idazteko.

Aurrera egin baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiot Alfontso Mujika Etxeberriari, lan honi egin dion ikuskapenagatik, bai eta eskaini dizkidan ohar jakingarri eta argitasun guztiengatik ere. Beraren laguntza barik lan honek ez zukeen argirik ikusiko. Mila esker, bihotz-bihotzez, Alfontso! Eskerrak emateko orduan, Miriam Urkia Gonzalez ere luzatu nahi dizkiot eskerrak berak emandako laguntasunagatik.

---

<sup>1</sup> **Ezkongaiak** eta **Noragabeak** sarrerak dira salbuespenak, beraiek *Odisearen* barruan duten garrantziagatik.

Azkenik, *Odisean* ageri diren herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak ez daude lan honetan. Horiek beste lan baten gai izango direlakoan nago.

## 2. Euskaltzaindiaren arauak exonomastikari buruz, saiakera honen esparruan

Daborduko hainbat izen arrunt eta berezi arautu ditu Euskaltzaindiak, antzinako hainbat hizkuntzatan ageri direnak (hau moldiztegirako aurkeztu dudun unean 184. araua emanda dauka Euskaltzaindiak). Edozelan ere, saiakeratxo honetan, *Odisea* liburuko leku-izenak, eta pertsona historikoen eta pertsonaia mitologikoen izen arrunt-bereziak hartuko ditugu kontuan, bai eta izen horien guztien definizioan ageri direnak ere; halandaze, Euskaltzaindiak *Odisea* liburuan ageri diren leku-izenen eta izen arrunt-berezien gainean eta haiekin lotutako leku-izenen eta izen arrunt-berezien gainean beren-beregi araututakoak, eta, alde edo moldez, hango pertsonak, pertsonaiak eta lekuak arautzen dituztenak baino ez ditugu aipatuko.

Hauek dira idazlan honetarako gidari erabili ditudan Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak:

1. 38. araua: «Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak»,
2. 47. araua: «Hizkuntza hilak eta klasikoak»,
3. 51. araua: «Kontinenteak, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak»,
4. 52. araua: «Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)»,
5. 53. araua: «Munduko estatuetakozko hizkuntza ofizialak»,
6. 70. araua: «Mundu zabaleko uharte nagusiak»,
7. 76. araua: «Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia»,
8. 82. araua: «Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak»,

9. 142. araua: «Antzinateko eskualdeen euskarazko izenak»,
10. 147. araua: «Antzinateko hirien euskarazko izenak»,
11. 154. araua: «Europako eskualde historiko-politiko nagusiak»,
12. 157. araua: «Europako hiriak»,
13. 159. araua: «Europako toponimia fisikoa»,
14. 172. araua: «Itsaslasterren izenak, itsasgune batzuen izenak eta Antartikako toponimia»,
15. 173. araua: «Astroen izenak»<sup>2</sup>, eta
16. 178. araua: «Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak. Euskaltzaindiaren gomendioa».

Horiekin batera, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, Euskaltzaindiaren EODA Euskal Onomastikaren Datutegiko *Munduko leku-izen nagusiak euskaraz eta Euskal Herriaren inguruko exonomia*<sup>3</sup>, *Emakumezkoen ponte-izenak*<sup>4</sup> eta *Gizonezkoen ponte-izenak*<sup>5</sup> ere erabili ditut, haiek Odiseako mota guztietako izakien izendapenak arautzen dituzten neurrian.

Aparteko aipamena merezi du *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*, ezik hainbat pertsonaia mitologikok izen arrunta legez eta izen berezia legez joka dezake; horretara, normalizazio bidean onuragarri da *ninfa*, *sirena* eta beste berba batzuk zabaltzea, izakiok euskaraz behingoz eta modu bakarrean izendatuta daudenez gero.

### 3. Zerrendak

Hala, bada, saiakeratxo honetan zerrenda hauek azalduko dira:

2 Arau honek berealdiko garrantzia du; hain zuzen, arau honen barruan, 3. eranskinean, «alfabeto grekoaren letren izenak» ematen dira, eta, horrezaz gainera, argizagi askok eta askok greziar mitologiako pertsonaien izenak hartzen dituzte.

3 <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/eoda/exonimoak.pdf>

4 <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/eoda/emakumezkoak.pdf>

5 <http://www.euskaltzaindia.eus/dok/eaeb/eoda/gizonezkoak.pdf>

1. **Odiseako pertsona-izen klasikoen, pertsonaia mitologikoen, leku-izenen eta gainerako izakien zerrenda osoa.**— Berean, lehenengo zutabean, euskara baturako proposatzen den forma azalduko da; bigarrenean, aita Santi Onaindiak 1985. urteko itzulpenean erabilitako ordaina edo ordainak ageriko dira; hirugarren zutabean, euskara baturako forma proposatzeko oinarri legez hartutako Euskaltzaindiaren arauaren zenbakia, halakoa dagoenean, eta, laugarren zutabean greziera klasikoko grafia.

Hirugarren zutabean, pertsona-izen klasikoen eta pertsonaia mitologikoen eretzean, Euskaltzaindiaren arauaren zenbakia ageri da, baldin eta izen bat beren-beregi erabakita badago; hori ez ezik, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* aipamena egiten da gainerako izakien izen arruntei dagokienez, izenok hiztegi horretan araututa badaude.

Betiere, greziera klasikoko izen berezi bat euskaraz berariaz araututa ez dagoenean, orduan «76\*» ageri da, zertarako eta Euskaltzaindiaren arau horren irizpideak erabilia baturako forma proposatu dela adierazteko.

Hori ez ezik, baldin eta izen arrunt batzuk izen berezien balioarekin azaltzen badira, Euskaltzaindiak erabakirik hartua ez badu, eta horiek daborduko beste toki batzuetan erabilia badaude, orduan horien aipamena egin da, berbarako, BERRIAREN *Estilo-liburua* edo euskarazko Wikipedia.

Goian esan den legez, zerrenda honetan, *Odisean* dauden pertsona-izen klasikoen eta pertsonaia mitologikoen izen berezi guztiak ageri dira, bai eta pertsonifikazioa dakarten izen arruntak ere, berbarako, *Lurra, Egunsentia...* Horiek ez ezik, leku-izenak ere azaltzen dira, bai izen berezi hutsak direnak (berbarako, *Kreta*), bai izen arruntez eratu-takoak (esaterako, *Belearen Harkaitza*).

Zerrenda honetan 425 sarrera daude.

Lehenengo zerrenda<sup>6</sup>

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Adrastea	<i>Adrasta</i>	82	Ἀδράστεια
Aedon	<i>Aedon</i>	76*	Ἀηδών
Afidas	<i>Afidante</i>	76*	Ἀφειδας
Afrodita	<i>Afrodita</i>	82	Ἀφροδίτη
Agamemnon	<i>Agamenon</i>	76	Ἀγαμέμνων
Agelao	<i>Agelao</i>	76*	Ἀγέλαος
Ajax	<i>Aiante</i>	82	Αἴας
Akaia	<i>Akaia</i>	142	Ἀχαια
Akasto	<i>Akasto</i>	76*	Ἄκαστος
Akeron	<i>Akeronte</i>	76*	Ἀχέρων
Akiles	<i>Akil/Akile/Akileu</i>	82	Ἀχιλλεύς
Akroneo	<i>Akroneu</i>	76*	Ἀκρόνείως
Aktoris	<i>Aktorise</i>	76*	Ἀκτορίς
Alektor	<i>Alektor</i>	76*	Ἀλέκτορ
Alfeo	<i>Alfeu</i>	76*	Ἀλφειός
Alibanto	<i>Alibante</i>	76*	Ἀλύβαντος
Alkandra	<i>Alkandra</i>	76*	Ἀλκάνδρη
Alkmena	<i>Alkmena</i>	82	Ἀλκμήνη
Alkmeon	<i>Alkmeon</i>	76*	Ἀλκμαίων
Aloeo	<i>Aloeu</i>	76*	Ἀλωεύς
Altzino <sup>6</sup>	<i>Alkinoo</i>	82	Ἀλκίνους
Altzipe	<i>Alzipe</i>	76*	Ἀλκίπη
Amitaon	<i>Amitaon</i>	76*	Ἀμυθάων
Amniso	<i>Amniso</i>	76*	Ἀμνισός
Anabesineo	<i>Anabesineu</i>	76*	Ἀναβησίνείως

<sup>6</sup> 76. arauan, berriz, **Altzino** ageri da; greziera klasikoko grafia, aldiz, bera da arau bietan: zerrenda honetan ageri dena.

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
<b>Andremon</b>	<i>Andremon</i>	76*	Ἀνδραίμων
<b>Anfialo</b>	<i>Anfial</i>	76*	Ἀμφιάλος
<b>Anfiarao</b>	<i>Anfiarao</i>	76*	Ἀμφιάραος
<b>Anfiloko</b>	<i>Anfiloko</i>	76*	Ἀμφίλοχος
<b>Anfimedon</b>	<i>Anfidemonte</i>	76*	Ἀμφιμέδων
<b>Anfinomo</b>	<i>Anfinomo</i>	76*	Ἀμφινόμος
<b>Anfion</b>	<i>Anfion</i>	82	Ἀμφίων
<b>Anfitea</b>	<i>Anfitea</i>	76*	Ἀμφιθέα
<b>Anfitrion</b>	<i>Anfitrion</i>	82	Ἀμφιτρώων
<b>Anfitrite</b>	<i>Anfitrite</i>	82	Ἀμφιτρίτη
<b>Ankialo</b>	<i>Ankial</i>	76*	Ἀγκιάλος
<b>Antifates</b>	<i>Antifate</i>	76*	Ἀντιφάτης
<b>Antifo</b>	<i>Antifo</i>	76*	Ἄντιφος
<b>Antikleia</b>	<i>Antikele</i>	76*	Ἀντίκλεια
<b>Antiklo</b>	<i>Antiklo</i>	76*	Ἄντικλος
<b>Antiloko</b>	<i>Antiloko</i>	76*	Ἀντίλοχος
<b>Antinoo</b>	<i>Antinoo</i>	76	Ἀντίνοος
<b>Antiope</b>	<i>Antiope</i>	82	Ἀντιόπη
<b>Apeira</b>	<i>Apira</i>	76*	Ἀπειρή
<b>Apolo</b>	<i>Apol/Apolo</i>	82	Ἀπόλλων
<b>Ares</b>	<i>Are/Ares</i>	82	Ἄρης
<b>Arete</b>	<i>Arete</i>	76*	Ἀρήτη
<b>Areto</b>	<i>Areto</i>	76*	Ἄρητος
<b>Aretusa</b>	<i>Aretusa</i>	76*	Ἀρέθουσα
<b>Argifontes</b>	<i>Argifonte</i>	76*	Ἀργειφόντης
<b>Argo</b>	<i>Argos</i>	76*	Ἄργώ
<b>Argus</b>	<i>Argos</i>	82	Ἄργος
<b>Ariadna</b>	<i>Ariadna</i>	82	Ἀριάδνη
<b>Aribas</b>	<i>Aribante</i>	76*	Ἀρύββας
<b>Arneo</b>	<i>Arneu</i>	76*	Ἄρναϊός



Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Artazia	<i>Artazi</i>	76*	Ἀρτακίη
Artemisa	<i>Artemi/Artemis</i>	82	Ἄρτεμις
Artzesio	<i>Arkesi/Arzesi</i>	76*	Ἀρκεΐσιος
Asfalion	<i>Asfalion</i>	76*	Ἀσφαλίων
Asopo	<i>Asopo</i>	76*	Ἀσωπός
Asteris	<i>Asteris</i>	76*	Ἀστερίς
Atena	<i>Atene</i>	82	Ἀθήνη/Ἀθηναίη
Atenas	<i>Atenai</i>	38, 147	Ἀθηναί
Atlas	<i>Atlante</i>	82	Ἄτλας
Atreo	<i>Atreu/Atreo/Atreu</i>	82	Ἄτρεύς
Auloliko	<i>Aulolik/Auloliko</i>	76*	Αὐτόλυκος
Autonoe	<i>Autonoe</i>	173	Ἀυτονόη
Belearen Harkaitza	<i>Belearen arkaitza</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Κόρακος πέτρη
Boeto	<i>Boeto</i>	76*	Βοηθο
Boötes	<i>Boote</i>	173	Βοώτης
Boreas	<i>Borea</i>	82	Βορέας
Deifobo	<i>Deifobo</i>	76*	Δηΐφοβος
Delos	<i>Delos</i>	76*	Δήλος
Demeter	<i>Demeter</i>	82	Δημήτηρ
Demodoko	<i>Demodoko</i>	76*	Δημόδοκος
Demoptolemo	<i>Demoptolemo/ Demotolema</i>	76*	Δημοπτόλεμος
Deukalion	<i>Deukalion</i>	82	Δευκαλίων
Dia	<i>Dia</i>	76*	Δία
Dimanto	<i>Dimante</i>	76*	Δύμαντος
Diokles	<i>Diokle/Diokles</i>	76*	Διοκλῆς
Diomedes	<i>Diomede</i>	82	Διομήδης
Dioniso	<i>Dioniso</i>	82	Διόνυσος
Dmetor	<i>Dmetor</i>	76*	Δμήτορ

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Dodona	<i>Dodona</i>	147	Δωδώνᾱ edo Δωδώνη
Dolio	<i>Doli</i>	76*	Δολίος
Dulikio	<i>Duliki</i>	76*	Δουλιχίω
Edipo	<i>Edipo</i>	82	Οιδίπους
Eea	<i>Eea</i>	76*	Αἶαία
Eetes	<i>Eete</i>	76*	Αἴητης
Efialtes	<i>Efialtes</i>	76	Ἐφιάλτης
Efira	<i>Efira</i>	76*	Εφύρα
Egas	<i>Egas</i>	76*	Αἰγαί
Egiptio	<i>Egipti</i>	76*	Αἰγύπτιος
Egipto	<i>Egipto/Ejipto</i>	38/82	Αἴγυπτος
Egisto	<i>Egisto</i>	82	Αἰγισθος
Egunsentia	<i>Argidivria/Egu-antza/ Eguantza/Egunsentia/ Ostantza</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Ἡριγένεια
Eguzkia	<i>Eguzkia</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	(Ἡλιος)
Ekalia	<i>Ekali</i>	76*	Οἰχαλία
Ekefron	<i>Ekefron</i>	76*	Ἐχέφρων
Ekeneo	<i>Ekeneu</i>	76*	Ἐχένηος
Eketo	<i>Eketo</i>	76*	Ἐχετος
Elato	<i>Elata</i>	76*	Ἐλατος
Elatreo	<i>Elatreu</i>	76*	Ἐλατρεύς
Elide	<i>Elide</i>	147	Ἴηλις
Eliseoko Zelaiak	<i>Eliseu Zelaiak</i>	BERRIAREN <i>Estilo liburua</i>	Ἡλύσια πεδία
Elpenor	<i>Elpenor</i>	76*	Ἐλπίνωρ
Enipeo	<i>Enipeu</i>	76*	Ενιπεύς
Enopo	<i>Enope</i>	76*	Οἶνοπος
Eolia	<i>Eoli</i>	142	Αἰολίς

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Eolo	<i>Eol</i>	82	Αἴολος
Epeo	<i>Epeu</i>	76*	Ἐπειός
Eperito	<i>Eperito</i>	76*	Ἐπήριτος
Epikasta	<i>Epikasta</i>	76*	Ἐπικάστη
Erebo	<i>Erebo</i>	82	Ἔρεβος
Erekteo	<i>Erekteu</i>	82	Ἐρεχθεύς
Eretmeo	<i>Eretmeu</i>	76*	Ἐρετμεύς
Erifile	<i>Erifile</i>	76*	Ἐριφύλη
Erimanto	<i>Erimanto</i>	76*	Ερύμανθος
Erinia/k	<i>Erini/Erinis</i>	82	Ἐρινύς/Ἐρινύες
Erraldoi/ak	<i>Erraldoi</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Γίγας/Γίγαντες
Eskeria	<i>Eskeri</i>	76*	Σχερία
Eson	<i>Eson</i>	76*	Αἴσων
Esparta	<i>Esparta</i>	147	Σπάρτα/Σπρατη
Estix	<i>Estix</i>	76*	Στύξ
Estratio	<i>Estrati</i>	76*	Στρατίος
Eszila	<i>Eskila</i>	82	Σκύλλα
Esziro	<i>Eskiro</i>	76*	Σκύρος
Eteoneo	<i>Eteoneu</i>	76*	Ἐτεωνεύς
Eton	<i>Eton</i>	76*	Αἶθων
Euanteo	<i>Ebantes</i>	76*	Εὐάνθεος
Eubea	<i>Eubea</i>	154, 159	Εὐβοία
Eumelo	<i>Eumelo</i>	76*	Εὐμελος
Eumeo	<i>Eumeo</i>	76*	Εὐμαιος
Eupites	<i>Eupite/Eupiter</i>	76*	Εὐπειθής
Euriades	<i>Euriade</i>	76*	Εὐρύαδην
Eurialo	<i>Eurial</i>	76*	Εὐρύαλος
Euribates	<i>Euribate</i>	76*	Εὐρυβάτης
Euridamas	<i>Euridamante</i>	76*	Εὐρυδάμας

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
<b>Euridize</b>	<i>Euridize</i>	82	Ευρυδίκη
<b>Euriklea</b>	<i>Eurikle</i>	76*	Εὐρύκλεια
<b>Euriloko</b>	<i>Euriloko</i>	76*	Εὐρύλοχος
<b>Eurimako</b>	<i>Eurimako</i>	76*	Εὐρύμαχος
<b>Eurimedon</b>	<i>Eurimedonte</i>	76*	Εὐρυμέδων
<b>Eurimedusa</b>	<i>Eurimedusa</i>	76*	Εὐρυμέδουσα
<b>Eurinome</b>	<i>Eurinome</i>	76*	Εὐρυνόμη
<b>Eurinomo</b>	<i>Eurinomo</i>	76*	Εὐρύνομος
<b>Euripilo</b>	<i>Euripilo</i>	76*	Εὐρύπυλος
<b>Eurition</b>	<i>Euritio</i>	76*	Εὐρυτίων
<b>Eurito</b>	<i>Eurito</i>	76*	Εὐρυτος
<b>Euro</b>	<i>Euro</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Εὐρος
<b>Ezkongaiak<sup>7</sup></b>	<i>gizongaiak/senargaiak/senargeiak</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Μνηστῆρες
<b>Faeton</b>	<i>Faetonte</i>	82	Φαέθων
<b>Faetusa</b>	<i>Faetusa</i>	76*	Φαέθουσα
<b>Faros</b>	<i>Faro</i>	76*	Φάρος
<b>Feas</b>	<i>Feas</i>	76*	Φεάς
<b>Febo Apolo</b>	<i>Peibo Apol / Poibu Apol</i>	82	Φοῖβος Ἀπόλλων
<b>Fedimo</b>	<i>Fedimo</i>	76*	Φαίδιμος

<sup>7</sup> Aita Santi Onaindiak «gizongai», «senargai» eta «senargei» darabiltza ordezko legez. Nik kontsul-tatu ditudan gaztelaniazko bertsio guztietan, berriz, «pretendientes» erabiltzen dute itzultzaileek; frantsesezkoetan, «*prétendants*», eta ingelesezkoetan, «*suitors*». Inork behinola *Odisearen* itzulpen bat egin nahi izan baleza, nire proposamena «*ezkongai*» erabiltzea izango litzateke: ez aita Santi Onaindiaren ordainak txarto daudelako, ezpada berak egindako itzulpenean bertan koherentea goa izango zatekeelako; izan ere, berba hauek guztiak aurki ditzakegu: «*ezkondu*», «*ezkontza*», «*ezkontz-sari*», «*ezkontzea*», «*ezkontide*», «*ezkon-oiá*», «*ezkont-oge*», «*ezkontz-eguna*», «*ezkontz-doe*», «*ezkon-barri*», «*ezkon-oge*», «*ezkontz-auste*», «*ezkon-lagun*», «*ezkontide*», «*ezkontsari*», «*ezkonbarri*», «*ezkontz-bezuzá*», «*ezkontsari*», «*ezkontz-ordu*», «*ezkont-adiñ*», «*ezkonbide*» eta «*ezkongai*». Azken ordain hau «*ezkongai-aro*» hitz-elkartean darabil.

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
Fedra	<i>Fedra</i>	82	Φαίδρα
Femio	<i>Femi</i>	76*	Φήμιος
Fenizia	<i>Fenezi/Fenizia</i>	142	Φοινίκην
Feras	<i>Feras</i>	76*	Φεραί
Feres	<i>Feres</i>	76*	Φέρης
Festo	<i>Festo</i>	76*	Φαιστός
Fidon	<i>Fidon/Fondo</i>	76*	Φειδών
Filaze	<i>Filake</i>	76*	Φυλακή
Filetio	<i>Fileti</i>	76*	Φιλοίτιος
Filo	<i>Filo</i>	76*	Φυλώ
Filoktetes	<i>Filoktete</i>	82	Φιλοκτήτης
Fortzis	<i>Forzis</i>	76*	Φόρκυς
Fronio	<i>Froni/Frono</i>	76*	Φρόνιος
Frontis	<i>Frontis</i>	76*	Φροντις
Ftia	<i>Ptia</i>	76*	Φθία
Geresto	<i>Geresto</i>	76*	Γεραιστός
Girea	<i>Girea</i>	76*	Γυραίην
Gorgona	<i>Gorgo</i>	76*	Γοργών/Γοργώ
Gortina	<i>Gortina</i>	147	Γόρτυν
Gurdia	<i>Burdia</i>	173	Ἄμαξαν
Hades	<i>Hade</i>	82	Ἄδης
Halio	<i>Halio</i>	76*	Ἄλιός
Haliterses	<i>Alitarse/Halitarse/ Haliterses</i>	76*	Ἀλιθέρης
Halosidne	<i>Halosidne</i>	76*	Ἀλοσίδνης
Harpiak	<i>Harpiak/Arpiak</i>	82	Ἄρπυιαι
Hartza	<i>Artza</i>	173	Ἄρκτον
Hebe	<i>Hebe</i>	82	Ἥβη
Hefesto	<i>Hefesto/Hefestu</i>	82	Ἥφαιστος
Helade	<i>Elade</i>	142	Ἑλλάς

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Helena	<i>Elena/Helena</i>	82	Ἑλένη
Helesponto	<i>Helesponto</i>	159	Ἑλλήσποντος
Hera	<i>Hera</i>	82	Ἥρα
Herakles	<i>Herakle/Herakles</i>	76/82	Ἡρακλῆς
Hermes	<i>Hermes</i>	82	Ἑρμῆς
Hermione	<i>Hermione</i>	82	Ἑρμιόνη
Herrena	<i>Errena</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Ἀμφιγυήεις
Hiperea	<i>Biperea</i>	76*	Ὑπερείη
Hiperesia	<i>Hepiresia</i>	76*	Ὑπερησία
Hiperion	<i>Hiperion/Iperion</i>	173	Ὑπερίων
Hipodamia	<i>Hipodami</i>	76*	Ἴπποδάμεια
Idomeneo	<i>Idomeneu</i>	82	Ἴδομενεύς
Idotea	<i>Idotea</i>	76*	Εἰδοθέα
Ifikles	<i>Ifiklo</i>	76*	Ἴφικλῆς
Ifimedia	<i>Ifimedi</i>	76*	Ἴφιμέδεια
Ifito	<i>Ifito</i>	76*	Ἴφίτος
Iftima	<i>Iftima</i>	76*	Ἴφθίμη
Ikario	<i>Ikari</i>	76*	Ἰκάριος
Ikmalio	<i>Ikmali</i>	76*	Ἰκμάλιος
Ilion	<i>Ilion</i>	76*	Ἴλιον
Ilitia	<i>Ilitia</i>	76*	Εἰλειθία
Ilo	<i>Ilo</i>	76*	Ἴλος
Ino	<i>Ino</i>	82	Ἰνώ
Inor Ez <sup>s</sup>	<i>Iñor-ez</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Οὔτις
Iolko	<i>Yaolko</i>	76*	Ἰαωλόκος
Iro	<i>Iro</i>	76*	Ἴρος
Ismaro	<i>Ismaro</i>	76*	Ἴσμαρος

<sup>s</sup> Grafia hau proposatzea erabaki dut, Miriam Urkia Gonzalezen aholkuari jarraituz.

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
Itaka	<i>Itaka</i>	70	Ἰθάκη
Itako	<i>Itako</i>	76*	Ἴθακος
Itilo	<i>Itilo</i>	76*	Ἴτυλος
Jardano	<i>Yardano</i>	76*	Ἰάρδανος
Jasion	<i>Yasion</i>	76*	Ἰασίων
Jaso	<i>Yaso</i>	76*	Ἴασος
Jason	<i>Jason</i>	82	Ἰάσων
Kadmo	<i>Kadmo</i>	82	Κάδμος
Kalipso	<i>Kalipso</i>	82	Καλυψώ
Kaltzis <sup>9</sup>	<i>Kaltzis</i>	147	Χαλκίς
Karibdis	<i>Karibdis</i>	82	Χάρυβδις
Kariteak	<i>Eskerrak</i>	82	Χάριτες
Kasandra	<i>Kasandere</i>	82	Κασσάνδρα
Kastor	<i>Kastor</i>	82	Κάστωρ
Kios	<i>Kios</i>	154	Χίος
Klimene	<i>Klimene</i>	76*	Κλυμένη
Klimeno	<i>Klimeno</i>	76*	Κλύμενος
Klitemnestra	<i>Klitemnestra</i>	82	Κλυταιμήστρα
Klitio	<i>Kliti</i>	76*	Κλυτίος
Klito	<i>Klito</i>	76*	Κλείτος
Klitoneo	<i>Klitoneu</i>	76*	Κλυτόνης
Kloris	<i>Kloris</i>	76*	Χλωρίς
Knosos	<i>Knoso</i>	147	Κνωσός
Kozito	<i>Kozito</i>	76*	Κωκυτός
Krtais	<i>Krateis</i>	76*	Κράταιν
Kreon	<i>Kreonte</i>	76*	Κρέων

<sup>9</sup> Euskaltzaindiaren 147. arauan («Antzinateko hirien euskarazko izenak») **Kalkis** ageri da. Be-tiere, Euskaltzaindiak, lambda eta kappa-ren ostean bokal bat ageri denean, *k* letra tx transliteratzen du; adibidez, **Altzeo**, **Altzino**... Gauza bera egiten du ro eta kappa-ren ostean, bokal bat ageri denean; adibidez: **Artzesio**, **Fortzis**, **Laertzes**, **Zirtze**...

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
<b>Kreta</b>	<i>Kreta</i>	70	Κρήτη
<b>Kreteo</b>	<i>Kreteu</i>	76*	Κρηθεύς
<b>Kromio</b>	<i>Kromi</i>	76*	Χρόμιος
<b>Kronos</b>	<i>Krono</i>	82	Κρόνος
<b>Krunos</b>	<i>Krunos</i>	76*	Κρουνοῦς
<b>Ktesio</b>	<i>Ktesi</i>	76*	Κτήσιος
<b>Ktesipo</b>	<i>Ktesipo/Ztesipo</i>	76*	Κτήσιππος
<b>Ktimene</b>	<i>Ktimene</i>	76*	Κτιμένη
<b>Laertes</b>	<i>Laerte</i>	76*	Λαέρτης
<b>Laertzes</b>	<i>Laertze</i>	76*	Λαέρκης
<b>Lamos</b>	<i>Lamos</i>	76*	Λάμος
<b>Lanpetia</b>	<i>Lanpeti</i>	76*	Λαμπετία
<b>Lanpo</b>	<i>Lanpo</i>	76*	Λάμπος
<b>Laodamas</b>	<i>Laodamante</i>	76*	Λαοδάμῆς
<b>Lazedemonia</b>	<i>Lakedemoni</i>	142	Λακεδαιμονία
<b>Leda</b>	<i>Leda</i>	82	Λήδα
<b>Lemnos</b>	<i>Lemnos</i>	76*	Λήμνος
<b>Leodes</b>	<i>Leode</i>	76*	Λειώδης
<b>Leokrito</b>	<i>Leokrit</i>	76*	Λειώκριτος
<b>Lesbos</b>	<i>Lesbos</i>	70	Λέσβος
<b>Lestrigonia</b>	<i>Lestrigoni</i>	76*	Λαιστρυγόνια
<b>Leto</b>	<i>Leto</i>	82	Λητώ
<b>Leukada</b>	<i>Leukade</i>	154	Λευκάδα
<b>Libia</b>	<i>Libia</i>	38	Λιβύη
<b>Lotojalea</b>	<i>lotojalea</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Λωτοφάγος
<b>Lurra</b>	<i>Lurra</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Γαῖα
<b>Maia</b>	<i>Maia</i>	76*	Μαῖα
<b>Malea</b>	<i>Malea</i>	76*	Μαλέας



Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
Mantio	<i>Manti</i>	76*	Μάντιος
Maraton	<i>Maraton</i>	76*	Μαραθών
Maron	<i>Maron</i>	76*	Μάρων
Medon	<i>Medonte/Mendote</i>	76*	Μέδων
Megapentes	<i>Megapente</i>	76*	Μεγαπένθης
Megara	<i>Megara</i>	147	Μέγαρα
Melaneo	<i>Menelau</i>	76*	Μελανεύς
Melanpo	<i>Melanpo</i>	76*	Μελάμπους
Melantio	<i>Melanti</i>	76*	Μελάνθιος
Melanto	<i>Melanto</i>	76*	Μελανθώ
Memnon	<i>Memnon</i>	76/82	Μέμνων
Menelao	<i>Menelao/Menelau</i>	76/82	Μενέλαος
Mentes	<i>Mente/Mentes</i>	76*	Μέντης
Mentor	<i>Mentor</i>	76*	Μέντωρ
Mera	<i>Mera</i>	76*	Μαιῖραν
Mesaulio	<i>Mesauli</i>	76*	Μεσαύλιος
Mesenia	<i>Mesena</i>	142	Μεσσηνία
Mimas	<i>Mimante</i>	173	Μίμας
Minos	<i>Minos</i>	82	Μίνως
Mizenas	<i>Mikena</i>	147	Μυκῆναι
Mizene	<i>Mizene</i>	76*	Μυκῆνη
Moirak	<i>Gorulariak</i>	82	Μοῖραι
Mulio	<i>Muli</i>	76*	Μούλιος
Musa	<i>Musa</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Μοῦσα
Naiadeak	<i>ur-lamiña</i>	82	Ναιάδες
Naubolides	<i>Naubolide</i>	76*	Ναυβολίδης
Nausikaa	<i>Nausika/Nausikaa</i>	76*	Ναυσικάα
Nausitoo	<i>Nausitoo</i>	76*	Ναυσίθοος
Nauteo	<i>Nauteu</i>	76*	Ναυτεύς

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Neera	<i>Neera</i>	76*	Νέαира
Neio	<i>Neio</i>	76*	Νηίω
Neleo	<i>Neleu</i>	76*	Νηλεύς
Neoptolemo	<i>Neoptolemo</i>	76*	Νεοπτόλεμος
Neriko	<i>Neriko</i>	76*	Νήρικος
Nerito	<i>Nerito</i>	76*	Νήριτος
Nestor	<i>Nestor</i>	82	Νέστωρ
Ninfa	--/itxas-lamiña/ maitagarri / maiteder/ neskatxa/ninoa/ninpa / ur-lamiña eder	Euskaltzaindiaren Hiztegia	Νύμφα
Niso	<i>Niso</i>	76*	Νίσου
Noemon	<i>Noemon</i>	76*	Νοήμων
Noragabeak <sup>10</sup>	<i>Aldaberak/Alderriak</i>	Euskaltzaindiaren Hiztegia	Πλαγκτύς
Noto	<i>Noto</i>	76*	Νότος
Odiseo	<i>Odís/Ulises</i>	82	Ὀδυσσεύς
Ogigia	<i>Ogigi/Ogigia</i>	76*	Ὠγγίγη
Oikles	<i>Oikleu</i>	76*	Οἰκλῆς
Okialo	<i>Okial</i>	76*	Ὠκύαλος
Olinpo	<i>Olinpo/Olinpu</i>	147	Ὀλυμπος
Ops	<i>Ops</i>	82	Ὠψ <sup>11</sup>
Orestes	<i>Oreste/Orestes</i>	76/82	Ὀρέστης
Orion	<i>Orion</i>	82	Ὠρίων

<sup>10</sup> Aita Santi Onaindiak, itzulpenean, «Aldaberak» eta «Alderriak» darabiltza. *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* begiratu eta greziera klasikoko hitzaren esangurari ondo datorkionez gero, «Noragabeak» ordaina proposatu dut. Ingelesez, besteak beste, «Wandering Rocks» eta «the blessed gods call these rocks the Wanderers»; frantsesez, besteak beste, «Roches Errantes», eta gaztelaniaz, «Rocas Errantes».

<sup>11</sup> Euskaltzaindiaren 82. arauan, «Grekoa/Latina» zutabearen «Ops» ageri da, eta hori Erromako jainkosa baten izenari dagokio, alegia, emankortasunaren jainkosari; halandaze, sarrera hau zerranda haren osagarria izan daiteke.

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
<b>Orkomeno</b>	<i>Orkomeno</i>	147	Ὅρχομενό
<b>Ortigia</b>	<i>Ortigia</i>	76*	Ὄρτυγία
<b>Ortiloko</b>	<i>Ortiloko</i>	76*	Ὄρτιλοχος
<b>Ortsiloko</b>	<i>Orsiloko</i>	76*	Ὄρσιλοχος
<b>Ortzia</b>	<i>Ortzia</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Ὀυρανός
<b>Osa</b>	<i>Osa</i>	76*	Ὅσσα
<b>Ospea</b>	<i>Ospea</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Ὅσσα
<b>Oto</b>	<i>Oto</i>	76*	Ὦτος
<b>Ozeano</b>	<i>Okean</i>	82	Ὦκεανός
<b>Pafos</b>	<i>Paos</i>	147	Πάφος
<b>Palas Atena<sup>12</sup></b>	<i>Pala Atene / Palas Atene / Pallas Atene</i>	82	Παλλὰς Ἀθήνη
<b>Pandareo</b>	<i>Pandareu</i>	76*	Πανδάρεως
<b>Panopeo</b>	<i>Panopeu</i>	76*	Πανοπεύς
<b>Parnaso</b>	<i>Parnaso</i>	159	Παρνασσός
<b>Patroklo</b>	<i>Patroklo/Patrokol</i>	82	Πάτροκλος
<b>Peleo</b>	<i>Peleu</i>	82	Πηλεΰς
<b>Pelias</b>	<i>Pelias</i>	76*	Πελίας
<b>Pelion</b>	<i>Pelion</i>	76*	Πήλιον
<b>Penelope</b>	<i>Penelope</i>	82	Πηνελόπη
<b>Peon</b>	<i>Peon</i>	76*	Παιών
<b>Peribea</b>	<i>Peribea</i>	76*	Περίβοια
<b>Periklimeno</b>	<i>Periklimeno</i>	76*	Περικλύμενος
<b>Perimedes</b>	<i>Perimede</i>	76*	Περιμήδης
<b>Pero</b>	<i>Pero</i>	76*	Πηρώ
<b>Pertse</b>	<i>Perse</i>	76*	Πέρση

<sup>12</sup> Euskaltzaindiaren 82. arauan errakuntza bat dago; izan ere, 76. araua aplikatuta *Palas* behar du, «I» bakarrarekin, *Apolo* eta abar bezala (Alfontso Mujika Etxeberriaren oharra).

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
<b>Pertsefone</b>	<i>Persefonea</i>	82	Περσεφόνη
<b>Pertseo</b>	<i>Perseu</i>	82	Περσεύς
<b>Pieria</b>	<i>Pieri</i>	154	Περίαι
<b>Pilos</b>	<i>Pilos</i>	147	Πύλος
<b>Pireo</b>	<i>Pireo</i>	76*	Πείραιος
<b>Piriflegeton</b>	<i>Piriflegeton</i>	76*	Πυριφλεγέθων
<b>Piritoo</b>	<i>Piritoo</i>	82	Πειρίθοος
<b>Pisandro</b>	<i>Pisander/Pisandro</i>	76*	Πείσανδρος
<b>Pisenor</b>	<i>Pisenor</i>	76*	Πεισήνωρ
<b>Pisistrato</b>	<i>Pisistrato</i>	76	Πεισίστρατος
<b>Piton</b>	<i>Pito</i>	82	Πύθων
<b>Pleiadeak</b>	<i>Izar-Zazpikiak</i>	82	Πλειάδες
<b>Poias</b>	<i>Peante</i>	76*	Ποιάν
<b>Polibo</b>	<i>Palibo/Polipo</i>	76*	Πόλυβος
<b>Polidamna</b>	<i>Polidamna</i>	76*	Πολύδαμνα
<b>Polideuzes</b>	<i>Polideukes</i>	76*	Πολυδεύκης
<b>Polifemo</b>	<i>Polifemo</i>	82	Πολύφημος
<b>Polifides</b>	<i>Polifides</i>	76*	Πολυφείδης
<b>Polikasta</b>	<i>Polikasta</i>	76*	Πολυκάστη
<b>Poliktor</b>	<i>Poliktor</i>	76*	Πολύκτωρ
<b>Polineo</b>	<i>Poline</i>	76*	Πολυνήος
<b>Polites</b>	<i>Polite</i>	76*	Πολίτης
<b>Ponteo</b>	<i>Ponteu</i>	76*	Ποντεύς
<b>Pontonoo</b>	<i>Pontonoo</i>	76*	Ποντόνοε
<b>Poseidon</b>	<i>Posidon</i>	82	Ποσειδῶν
<b>Pramnio</b>	<i>Pramni</i>	76*	Πραμνείω
<b>Priamo</b>	<i>Priamo/Priamu</i>	82	Πρίαμος
<b>Primneo</b>	<i>Primneu</i>	76*	Πρυμνεύς
<b>Prokris</b>	<i>Prokris</i>	76*	Πρόκρις
<b>Proreo</b>	<i>Proreu</i>	76*	Πρωρεύς

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziara klasikoko forma
Proteo	<i>Proteu</i>	82	Πρωτεύς
Psiria	<i>Psiria</i>	76*	Ψυρία
Radamanto	<i>Erradamenti/ Radamantis</i>	82	Ῥαδάμανθους
Reitro	<i>Erretor</i>	76*	Ῥεῖθρον
Rexenor	<i>Errexenor</i>	76*	Ῥηξήνωρ
Salmoneo	<i>Salmoneu</i>	76*	Σαλμωνεύς
Samos	<i>Same/Samos</i>	154	Σάμος
Sidon	<i>Sidon</i>	147	Σιδών
Sikania	<i>Sikani</i>	76*	Σικανία
Sirena	<i>Itxas-maitagarria/ Maiteder</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Σειρήν
Sisifo	<i>Sisifo</i>	82	Σίσυφος
Sizilia	<i>Sikili</i>	70	Σικελία
Solimo	<i>Solimos</i>	76*	Σολύμων
Sunio	<i>Suni</i>	76*	Σούνιον
Tafos	<i>Tafos</i>	76*	Τάφος
Taigeto	<i>Taigeto</i>	76*	Ταῦγετος
Tanato <sup>13</sup>	<i>Balbe/Parka</i>	82	Θάνατος
Tantalo	<i>Tantalo</i>	82	Τάνταλος
Tebas	<i>Tebas</i>	147	Θήβαι
Telamon	<i>Telamon</i>	76*	Τελαμών
Telemako	<i>Telemako</i>	82	Τηλέμαχος
Telemo	<i>Telemo</i>	76*	Τήλεμος
Telepilo	<i>Telepilo</i>	76*	Τηλέπυλος
Temesa	<i>Temesa</i>	76*	Τεμέση
Temis	<i>Temis</i>	82	Θεμис
Tenedos	<i>Tenedos</i>	76*	Τένεδος

<sup>13</sup> Lluís Segalà: «Parca»; Charles-René-Marie Leconte de L'Île: «Moire», Médéric Dufour: «la Mort»; Samuel Butler eta A. S. Kline: «death».

Baturako forma	Aita Santi Onaindia	Proposamenerako oinarria	Greziera klasikoko forma
Teoklimeno	<i>Teoklimeno/ Teoklimeno</i>	76*	Θεοκλύμενος
Teseo	<i>Teseu</i>	82	Θησεύς
Tetis	<i>Tetis</i>	82	Τηθύς
Tideo	<i>Tideu</i>	76*	Τυδεύς
Tiestes	<i>Tieste</i>	82	Θυέστης
Tindaro	<i>Tindari/Tindaro</i>	82	Τυνδάρεως
Tiresias	<i>Tiresia/Tiresias</i>	82	Τειρεσίας
Tiro	<i>Tiro</i>	147 eta 76*	Τυρώ
Titio	<i>Titi</i>	76*	Τιτυός
Titono	<i>Titon</i>	76*	Τιθωνός
Toas	<i>Toante</i>	76*	Θόας
Ton	<i>Ton</i>	76*	Θῶν
Toon	<i>Toon</i>	76*	Θόων
Toosa	<i>Toosa</i>	76*	Θόωσα
Trasimedes	<i>Trasimede/Trasimedes</i>	76*	Θρασυμήδης
Trazia	<i>Trazi</i>	142	Θράκη
Trinazia	<i>Trinaki</i>	76*	Θρινακία
Tritogenia	<i>Tritogeni</i>	76*	Τριτογένεια
Troia	<i>Troia</i>	147	Τροία
Zante/Zazinto	<i>Zazinto</i>	154	Ζάκυνθος
Zefiro	<i>Zefir</i>	76/82	Ζέφυρος
Zentauro	<i>Zentaur</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Κένταυρος
Zeto	<i>Zeto</i>	82	Κητώ
Zeus	<i>Zeus</i>	82	Ζεύς
Ziklope	<i>kiklope/kiklopetar</i>	<i>Euskaltzaindiaren Hiztegia</i>	Κύκλωψ
Zipre	<i>Txipre</i>	70	Κύπρος
Zirtze	<i>Kirke</i>	82	Κίρκη
Zitera	<i>Kitere/Zitera</i>	159	Κυθήρεια

2. **Odiseako pertsona-izen klasikoen, pertsonaia mitologikoen, leku-izenen, gainerako izakien eta horiekin guztiokin loturiko izenen zerrenda definizioduna.**— Izan ere, zerrenda hau testu jarraitu modura azalduko da. Berean, alde batetik, *Odisean* ageri diren pertsona-izenen, pertsonaia mitologikoen, leku-izenen eta gainerako izakien izenak daude: izen bereziak absolutibo kasuan, eta izen arruntak nominatibo singularrean edo nominatibo pluralean.

Zerrenda honetan, aurreko zerrendaren lehenengo zutabearen ageri diren sarrerak emango dira, greziera klasikoko izenarekin eta izen horiek *Odisean* duten esangurarekin. Izenok **letra lodiz** emango dira, adibidez: «**Adrastea** (Ἀδράστεια).— Kretako ninfa».

Bestalde, berriz, *Odisean* ageri ez diren leku-izen batzuk eta pertsona historikoen eta pertsonaia mitologikoen izen arrunt-berezi batzuk azalduko dira; izan ere, *Odiseako* lekuekin, pertsonekin eta pertsonaiekin lotuta daude, eta ezinbestekoak dira horien esangura argitze-ko. Izen berri horiek modu bitara azalduko dira: 1) Euskaltzaindiak daborduko erabakiak dituenak **letra lodi-etzanex** azalduko dira [adibidez, **Adrasto** (Ἄδραστος)], eta 2) Euskaltzaindiak erabakita ez dituenak, berriz, **azpimarratz** agertuko dira [adibidez, **Damastor** (Δαμάστωρ)], betiere 76. arauaren irizpideak aplikatuta.

Zerrenda honetan 523 sarrera daude.

### Bigarren zerrenda

**Adrastea** (Ἀδράστεια).— Kretako ninfa.

**Adrasto** (Ἄδραστος).— Argusko hiru erregeetako bat. Ikusi **Erifile** sarrera.

**Aedon** (Ἀηδών).— Efesoko Pandareoren alaba; haren izengoitia Urretxindorra da.

**Afidas** (Ἀφείδας).— Odiseok hartutako izengoitia.

**Afrodita** (Ἀφροδίτη).— Zeus eta Dioneren alaba, eta Hefestoren emaztea; maitasunaren jainkosa. Edertasuna du ezaugarri.

**Agamemnon** (Ἀγαμέμνων).— Mizenasko erregea, Atreoren semea, Menelaoren anaia, Klitemnestraren senarra, eta Orestes, Ifigenia eta Elektra-  
ren aita. Bera izan zen greziarren aitzindaria Troiaren aurkako guduan.

**Agelao** (Ἀγέλαος).— Damastorren semea eta Peneloperen ezkongai.

**Ajax** (Αἴας).— 1) Telamonen semea eta Eakoren iloba; Ajax Handi izengoitikoa; greziarren gizurenetako bat izan zen Troiako Guduan. 2) Ajax Txiki izengoitikoa; Lokrisko Oileo erregearen semea.

**Akaia** (Ἀχαιΐα).— Antzinateko Greziako eskualdea.

**Akasto** (Ἄκαστος).— Dulikioko erregea.

**Akeron** (Ἀχέρων).— Hadesko ibaia.

**Akiles** (Ἀχιλλεύς).— Greziar gizurena Troiako Guduan; Peleo eta Teti-  
sen semea.

**Akroneo** (Ἀκρόνεώς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen.

**Aktoris** (Ἀκτορίς).— Peneloperen jopu emea.

**Alektor** (Ἀλέκτορ).— Espartarra. Beraren alaba Ifiloke ezkondu zen Menelaoren seme Megapentesekin.

**Alfeo** (Ἀλφειὸς).— Elideko ibaia eta ibai-jainkoa; Ortilokoren aita eta Dioklesen aitona.

**Alibanto** (Ἀλύβαντος).— Hiri ezezaguna. Odiseok itxura egiten du, bertan jaioa delakoa.

**Alkandra** (Ἀλκάνδρη).— Egiptoko Tebasko andrazkoa; Poliboren emaztea.

**Alkmena** (Ἀλκμήνη).— Heraklesen ama eta Anfitrionen emaztea.

**Alkmeon** (Ἀλκμαίων).— Anfiraoren semea eta Anfilokoren anaia.

**Aloeo** (Ἀλωεύς).— Poseidon eta Kanazeren semea, eta Ifimediaren senarra.



**Altzeo** (Ἀλκαῖος).— Ikusi **Anfitrión** sarrera.

**Altzino** (Ἀλκίνοος).— Feaziarren erregea, Nausitooren semea, Areteren senarra eta Nausikaaren aita.

**Altzipe** (Ἀλκίππη).— Helenaren jopu emeatako bat.

**Amitaon** (Ἀμυθάων).— Kreteo eta Tiroren semea.

**Amniso** (Ἀμνισός).— Kretako hiria eta portua. Uharteko iparraldean zegoen.

**Anabesino** (Ἀναβησίνεός).— Feaziar gaztea. Odiseoren aldeko jokoe-tan esku hartu zuen.

**Andremon** (Ἀνδραίμων).— Gogeren senarra eta Toasen aita.

**Anfialo** (Ἀμφιάλος).— Feaziar gaztea. Odiseoren aldeko jokoe-tan esku hartu zuen.

**Anfiarao** (Ἀμφιάραος).— Oiklesen semea, Erifileren senarra, eta Alkmeon eta Anfilokoren aita.

**Anfiloko** (Ἀμφίλοχος).— Anfiarao eta Erifileren semea, eta Alkmeonen anaia.

**Anfimedon** (Ἀμφιμέδων).— Peneloperen ezkongaietako bat. Telemakok hil zuen.

**Anfinomo** (Ἀμφινόμος).— Peneloperen ezkongaietako bat, aretiastar<sup>14</sup> Nisoren semea. Telemakok hil zuen.

**Anfion** (Ἀμφίων).— 1) Zeus eta Antioberen semea, eta Zetoren anaia bikia; anaiok Tebas fundatu zuten elkarrekin. 2) Orkomenoko erregea, Ja-soren semea eta Klorisen aita.

**Anfitea** (Ἀμφιθέα).— Autolikoren emaztea eta Antiklearen ama; Odiseoren amaren aldeko amona.

<sup>14</sup> Hemen «aretiastar» erabili dut, Euskaltzaindiaren 178. araua aplikatuz; gaztelaniaz *Aretiada* ematen da, frantsesez *filis d'Aréto*s eta ingelesez *son of Aretias*.

**Anfitrion** (Ἀμφιτρώων).— Altzeoren semea, Pertseoren iloba eta Zeusen biloba. Alkmenaren senarra eta Heraklesen aita izan zen.

**Anfitrite** (Ἀμφιτρίτη).— Itsas jainkosa eta Poseidonen emaztea.

**Ankialo** (Ἀγκιάλος).— Feaziarra, Mentesen aita. Odiseoren aldeko jo-koetan esku hartu zuen.

**Antifates** (Ἀντιφάτης).— 1) Lestrigoniarren gudaiburua. 2) Melanporen semea eta Oiklesen aita.

**Antifo** (Ἄντιφος).— 1) Egiptioren semea; ziklopeak jan zuen. 2) Itakar agurea.

**Antikleia** (Ἀντίκλεια).— Laertesaren emaztea eta Odiseoren ama. Haren arima agertzen zaio Odiseori.

**Antiklo** (Ἄντικλος).— Greziar gudaria. Troiako Zaldiaren barruan izan zen; Odiseok galarazi zion berba egiten, Helenak hari deitu zionean zaldia-  
ren barruan zegoela.

**Antiloko** (Ἀντίλοχος).— Nestorren semea, Akilesten lagun mina. Mem-  
nonek hil zuen Troiako Guduan.

**Antinoos** (Ἀντίνοος).— Peneloperen ezkongaietako bat. Odiseok hil zuen.

**Antiope** (Ἀντιόπη).— Asopo ibaiaren alaba.

**Apeira** (Ἀπείρη).— Hiri ezezaguna.

**Apollo** (Ἀπόλλων).— Zeus eta Letoren semea, eta argiaren, olerkiaren eta eresien jainkoa. Delos uhartean jaio zen eta hantxe zeukan bere jau-  
retxea ere.

**Ares** (Ἄρης).— Guduaren jainkoa, Zeus eta Heraren semea.

**Arete** (Ἀρήτη).— Rixenoren alaba, feaziarren errege Altzinooren loba eta emaztea, eta Nausikaaren ama. Arete bazuen aginpiderik bere erresu-  
man.

**Areto** (Ἄρητος).— Nestor eta Euridizeren semea.

**Aretusa** (Ἀρέθουσα).— Naiadeetako bat, iturria.

**Argifontes** (Ἀργειφόντης).— Hermes eta Hefesto jainkoen izengoitia.

**Argo** (Ἀργώ).— Jasonen eta argonauten itsasontzia.

**Argus** (Ἄργος).— 1) Antzinateko Greziako hiria, Diomedes erregearena. 2) Antzinateko Greziako eskualdea, Mizenas hiriburua zuena, Agamemnon erregearena. 3) Batzuetan Peloponeso izendatzeko erabiltzen zen Heladeren aurka jartzeko. 4) Antzinateko Grezia osoa ere izendatzen zuen. 5) Odiseoren txakurra.

**Ariadna** (Ἀριάδνη).— Minos eta Pasifaeren alaba.

**Aribas** (Ἀρύββας).— Sidongo merkatari aberatsa.

**Arkadia** (Ἀρκαδία).— Ikusi **Elide** sarrera.

**Arneo** (Ἄρναϊός).— Itakako eskalea; Iro izengoitiko.

**Artazia** (Ἄρτακίη).— Lestrigoniako erreka.

**Artemisa** (Ἄρτεμις).— Zeus eta Letoren alaba, eta Apoloren arreba; ehiza, jaiotze eta andrazkoen jainkosa.

**Artzesio** (Ἀρκείσιος).— Zeusen semea eta Laertesena aita.

**Asfalion** (Ἀσφαλίον).— Menelaoren ezkutaria.

**Asopo** (Ἄσσωπός).— Peloponesoko ipar-ekialdeko ibaia eta ibai-jainkoa.

**Asteris** (Ἄστερίς).— Itaka eta Samosen bitartean dagoen uharte harrikaitzua.

**Atena** (Ἀθήνη/Ἀθηναίη).— Zeusen alaba; jainkosa birjina; Odiseoren babeslea, Atenasen zaindaria, eta oro har hiri guztiena; andrazko txit ederra. Lantzaz, kaskoz eta ezkutuz jantzia irudikatu ohi da.

**Atenas** (Ἀθῆναι).— Antzinateko Greziako hiria.

**Atika** (Ἀττική).— Ikusi **Maraton** sarrera.

**Atlas** (Ἄτλας).— Titan bat, Ilargiaren eraentzailea, eta Japeto eta Klimeneren semea; Kalipsoren aita. Berak dauzka lepo gainean Lurra eta Zerua bereizten dituzten zutoinak.

**Atreo** (Ἀτρεύς).— Mizenasko erregea, Pelope eta Hipodamiaren semea, eta Agamemnon eta Menelaoren aita.

**Autoliko** (Αὐτόλυκος).— Antiklearen aita eta Odiseoren aitona.

**Autonoe** (Αυτονόη).— Peneloperen jopu emea.

**Belearen Harkaitza** (Κόρακος πέτρη).— Aretusaren iturritik hur da goen aurkintza, Itakan.

**Beozia** (Βοιωτία).— Ikusi **Tebas** sarrera.

**Boeto** (Βοηθο).— Menelaoren ezkutari Eteoneoren aita.

**Boötes** (Βοώτης).— Konstelazioa. Odiseok erabili zuen bere burua gidatzeko.

**Boreas** (Βορέας).— Negua dakarren ipar-haize hotzaren jainkoa.

Damastor (Δαμάστωρ).— Ikusi **Agelao** sarrera.

**Danao** (Δαναός).— Ikusi **Egiptio** sarrera.

**Dardano** (Δάρδανος).— Ikusi **Ilion** sarrera.

**Deifobo** (Δηϊφοβος).— Troiako printzea, Priamo eta Hekubaren semea, Hektorren anaia. Paris hil ostean, Helenarekin ezkondu zen.

Deioneo (Δηιονεύς).— Ikusi **Filako** sarrera.

Deipile (Δηϊπύλη).— Ikusi **Diomedes** sarrera.

**Delfos** (Δελφοί).— Ikusi **Piton** sarrera.

**Delos** (Δήλος).— Greziako uhartea, Zikladeetako txikiena. Mitologiak dioenez, uharte hau noraezean zebilen, baina Zeusek ainguratu zuen, Apolo eta Afroditaren sorleku izan zedin.

**Demeter** (Δημήτηρ).— Kronos eta Rearen alaba, lur-lantzearen eta uzta-biltzearen jainkosa; Zeusen arreba eta Pertsefoneren ama.

**Demodoko** (Δημόδοκος).— Feaziarren hirian, Altzinooren jauregian bizi den bertsolari itsua.

**Demoptolemo** (Δημοπτόλεμος).— Peneloperen ezkongaietako bat. Odiseok hil zuen.

**Deukalion** (Δευκαλίων).— Minos Kretako erregearen semea eta Idome-neoren aita. Odiseok elkarrizketa baten dio haren semea dela.

**Dia** (Δία).— Kretako hiriburua den Herakliondik kilometro batzuk iparaldera dagoen uharte bat da; Artemisaren alde sakratua. Artemisak bertan hil zuen Ariadna.

**Dimanto** (Δύμαντος).— Itsas kapitain feaziarra.

**Diokles** (Διοκλῆς).— Ferasko jauna eta Ortilokoren semea.

Diomede (Διομήδη).— Ikusi **Filako** sarrera.

**Diomedes** (Διομήδης).— Tideo eta Deipileren semea; Troiako Gudua-ren gizurenetako bat.

**Dione** (Διώνη).— Ikusi **Afrodita** sarrera.

**Dioniso** (Διώνυσος).— Traziar jatorriko jainkotasuna; greziarren uste-tan, ardoaren jainkoa.

**Dmetor** (Δμήτωρ).— Jasoren semea eta Zipreko erregea.

**Dodona** (Δωδώνᾱ edo Δωδώνη).— Epiroko hiri nagusia; artadi santu baten ondoan Zeusek zeukan santutegiagatik ospetsu. Odiseok elkarrizketa baten esan zuen bertan izan zela.

**Dolio** (Δολίος).— Peneloperen morroi zaharra.

**Dulikio** (Δουλιχίω).— Itakatik hur dagoen uharte.

**Eako** (Αἶακός).— Ikusi **Ajax** sarreraren 1. adiera.

Ebenor (Εὐήνωρ).— Ikusi **Leokrito** sarrera.

**Edipo** (Οιδίπους).— Laios eta Jokastaren semea.

**Eea** (Αἰαία).— Uharte, Zirtzeren bizilekua.

**Eetes** (Αἰήτης).— Zirtzeren neba.

**Efeso** (Ἐφεσος).— Joniako merkataritza, erlijio eta kulturako gune garrantzitsua zen, Egeo itsaso ertzean. Ikusi **Aedon** sarrera.

**Efialtes** (Ἐφιάλτης).— Ifimedia eta Poseidonon semea.

**Efira** (Ἐφύρα).— Antzinateko Greziako herrixka, Iloren sorterrria.

**Egas** (Αἶγαι).— Akaiako hiria eta Poseidonon bizitokia.

**Egeo** (Αἰγαίο).— 1) Itsasoa. 2) Ikusi **Teseo** sarrera.

**Egina** (Αἴγινα).— Ikusi **Telamon** sarrera.

**Egiptio** (Αἰγύπτιος).— Itakako zaharra, Antiforen, Eurinomoren eta beste seme biren aita.

**Egipto** (Αἴγυπτος).— 1) Afrikako Iparraldeko herrialdea. 2) Nilo ibaia.

**Egira** (Αιγείρα).— Ikusi **Hiperesia** sarrera.

**Egisto** (Αἰγισθος).— Tiestes eta honen alaba Pelopiaren arteko intzestuko maitasunaren fruitua.

**Egungentia** (Ἐργιγένεια).— Jainkosa, Hiperionen alaba, eta Eguzkiaren eta Ilargiaren ahizpa; Eguzkiaren aurretik agertzen den arrosa koloreko argia.

**Eguzkia** (Ἥλιος).— Helios jainkoa.

**Ekalia** (Οἰχαλία).— Euritoren hiria, Mesenian.

**Ekefron** (Ἐχέφρων).— Nestorren semea.

**Ekeneo** (Ἐχένηος).— Feaziar zaharra.

**Eketo** (Ἐχετος).— Greziako ipar-mendebaldeko erregea, beraren ankerkeriaz ezaguna.

**Ekinada uharteak** (Ἐχινάδες νῆσοι).— Ikusi **Tafostarra** sarrera.

**Elato** (Ἐλατος).— Peneloperen ezkongaietako bat. Eumeok hil zuen.

**Elatreo** (Ἐλατρεύς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen eta irabazi.

**Elektra** (Ἠλέκτρα).— Agamemnon eta Klitemnestraren alaba.

**Elide** (Ἐλιδε).— Peloponesoko hiri eta inguruko eskualdea, Arkadiaren mendebaldean, Peneo ibaiaren ezker aldean.

**Eliseoko Zelaiak** (Ἠλύσια πεδία).— Jainko-jainkosen betiereko bizitokia.

**Elpenor** (Ἐλπηνώρ).— Odiseoren itsasgizonetarik gazteena.

**Enarete** (Ἐναρέτη).— Ikusi **Salmoneo** sarrera.

**Enipeo** (Ἐνιπέυς).— Ozeano eta Tetisen semea, Tesaliako ibaia eta ibai-jainkoa.

**Enoro** (Ἐνόρος).— Leodesen aita.

**Eolia** (Αἰολίς).— Eolo haizeen erregea bizi zen uhartera.

**Eolo** (Αἴολος).— Hipotesen semea eta haizeen jauna.

**Eos** (Ἠώς).— Ikusi **Titono** sarrera.

**Epeo** (Ἐπειός).— Panopeoren semea, Parnasoko feaziar gudaria eta Troiako Zaldiaren egilea.

**Eperito** (Ἐπήριτος).— Odiseoren izengoitia.

**Erikasta** (Ἐπικάστη).— Jokasta.

**Epiro** (Ἐπειρος).— Ikusi **Dodona** sarrera.

**Erebo** (Ἐρεβος).— Iluntasunaren eta itzalpearen pertsonifikazioa.

**Erekteo** (Ἐρεχθεύς).— Atenasko errege mitikoa, Pandion eta Zeuxiparen semea, eta Oritia eta Prokrisen aita.

**Eretmeo** (Ἐρετμεύς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartzen du.

**Erifile** (Ἐριφύλη).— Talaoren alaba, Adrastoren arreba, Argusko Anfaraoren emaztea eta Alkmeonen ama.

**Erimanto** (Ἐρύμανθος).— Peloponesoko ipar-mendebaldeko mendigunea; Artemisaren ehiza-lekua.

**Erinia/k** (Ἐρινός/Ἐρινύες).— Ahaide-lokarrien aurka batez ere egin ohi ziren gaitzakeriak mendekatzen zituzten jainkosak.

**Erraldoi/ak** (Γίγας/Γίγαντες).— Pertsonaia mitologiko hauek giza itxurakoak dira, baina gizakiak baino askoz garaiagoak.

**Esperia** (Σχερρία).— Feaziarren uhartea.

**Eson** (Αἴσων).— Kreteo eta Tiroren semea, eta Feres eta Amitaonen anaia.

**Esparta** (Σπάρτα/Σπρατη).— Lazedemonia izenez ere ezaguna; antzinateko Greziako hiri-estatu, Peloponesoko hegoaldean, Lakoniako lurraldean; Helena eta Peneloperen jaioterria.

**Estix** (Στύξ).— Ozeanidea, Ozeano eta Tetisen alaba, lur azpiko aintzira.

**Estratio** (Στρατίος).— Nestorren semea.

**Ezila** (Σκύλλα).— Mesinako itsas zintzurtean aurkitzen zen munstroa. Han ingurutik igarotzen ziren itsasgizonak erakarri eta harrapatu ohi zituen.

**Eziro** (Σκύρος).— Greziako uhartea.

**Eteoneo** (Ετεωνεύς).— Menelaoren ezkutaria.

**Eton** (Αἴθων).— Odiseoren izengoitia.

**Etra** (Αἴθρα).— Ikusi **Teseo** sarrera.

**Euanteo** (Εὐάνθεος).— Maronen aita.

**Eubea** (Εὐβοία).— Uharte handia. Greziaren ekialdetik hur dago, eta beronetatik Eubeako golkoak banatuta dago.

**Eumelo** (Εὐμελος).— Peneloperen ahizpa Iftimaren senarra.

**Eumeo** (Εὐμαιος).— Odiseoren txerrizaina.

**Eupites** (Εὐπειθης).— Peneloperen ezkongai Antinooren aita. Laertesek hil zuen.

**Euriades** (Εὐρύαδην).— Peneloperen ezkongaietako bat. Telemakok hil zuen.

**Eurialo** (Εὐρύαλος).— Feaziarra, Naubolidesen semea.

**Euribates** (Εὐρυβάτης).— Odiseoren ezkutaria.



**Euridamas** (Εὐρυδᾶμας).— Peneloperen ezkongaietako bat. Odiseok zauritu zuen.

**Euridize** (Ευρυδίκη).— Klimenoren alaba eta Nestorren emaztea.

**Euriklea** (Εὐρύκλεια).— Lehenengoz Laertesen jopu emea izan zen, eta gero Odiseorena, bai eta Peneloperen janari eta abarren arduraduna ere.

**Euriloko** (Εὐρύλοχος).— Odiseoren laguna, eta beraren ondorengoa agintean.

**Eurimako** (Εὐρύμαχος).— Poliboren semea eta ezkongai aitzindarietako bat. Odiseok hil zuen.

**Eurimedon** (Εὐρυμέδων).— Titan bat, erraldoien erregea eta Peribearen aita.

**Eurimedusa** (Εὐρυμέδουσα).— Apeirako andre zaharra, Nausikaaren jopu emea.

**Eurinome** (Εὐρυνόμη).— Peneloperen etxezaina.

**Eurino** (Εὐρύνομος).— Egiptioren semea eta Peneloperen ezkongaietako bat.

**Euripilo** (Εὐρύπυλος).— Teleforen semea.

**Eurition** (Εὐρυτίων).— Zentauroetako bat. Hipodamia bahitzen ahalegindu zen.

**Eurito** (Εὐρυτος).— Meseniako Ekaliako erregea eta Ifitoren aita. Apolok haserre bizian hil zuen.

**Euro** (Εὐρος).— Ekialdeko haizea.

**Europa** (Εὐρώπη).— Ikusi **Radamanto** sarrera.

**Ezkongaiak** (Μνηστῆρες).— Peneloperekin ezkondu nahi dutenak.

**Faeton** (Φαέθων).— Egunsentiaren gurdiko zaldietako bat.

**Faetusa** (Φαέθουσα).— Ninfa; Hiperionen arreba eta Neeraren ahizpa.

**Faros** (Φάρος).— Egiptoko uhartea, Niloren muturrean.

**Feas** (Φεάς).— Greziako mendebaldeko hiria.

**Febe** (Φοιβη).— Ikusi **Leto** sarrera.

**Febo Apolo** (Φοῖβος Ἀπόλλων).— Apolo eguzki-jainko gisa.

**Fedimo** (Φαίδιμος).— Sidongo erregea.

**Fedra** (Φαίδρα).— Kretako Minos erregearen eta Pasifaeren alaba.

**Femio** (Φήμιος).— Itakako jauregiko abeslaria.

**Fenizia** (Φοινίκη).— Antzinateko eskualdea.

**Feras** (Φεραί).— 1) Eumeloren etxea. 2) Dioklesen etxea.

**Feres** (Φέρης).— Kreteo eta Tiroren semea.

**Festo** (Φαιστός).— Kretako hegoaldeko hiria.

**Fidon** (Φείδων).— Tesprotiako erregea.

**Filaze** (Φυλακή).— Filakok Tesalian sortutako hiria, Ifiklesen agintepekoa.

**Filako** (Φύλακος).— Deioneo eta Diomederen semea, eta Klimeneren senarra.

**Filetio** (Φιλοτίτος).— Odiseoren artzainen maizter nagusia.

**Filo** (Φυλώ).— Helenaren jopu emea.

**Filoktetes** (Φιλοκτήτης).— Poiasen semea. Odiseorekin itzuli zen Troiatik; arkularirik onena zen, Odiseoren arabera.

**Fortzis** (Φόρκυς).— 1) Itsasoko agurea, Toosa ninfaren aita. 2) Haren izena Itakako portu bati ezarri zioten, beraren omenez.

**Fozida** (Φωκίς).— Ikusi **Orkomeno** sarrera.

**Frigia** (Φρυγία).— Ikusi **Tantalo** sarrera.

**Fronio** (Φρόνιος).— Noemonen aita, itakarra.

**Frontis** (Φροντις).— Onetorren semea eta Menelaoren ontzi-maisua.

- Ftia** (Φθία).— Tesaliako hiria eta Akilesen jaiolekua.
- Gea** edo **Gaia** (Γῆ/Γαῖα)].— Ikusi **Lurra** sarrera.
- Geresto** (Γεραιστός).— Eubeako hego-mendebaldeko muinoa.
- Girea** (Γυραΐην).— Egeoko uharte harkaitzua.
- Glauko** (Γλαῦκος).— Ikusi **Sisifo** sarrera.
- Gorge** (Γόργη).— Ikusi **Andremon** sarrera.
- Gorgona** (Γοργών/Γοργώ).— Fortzisen alabak ziren hiru gorgonak. Haien arteko ezagunena Medusa da.
- Gortina** (Γόρτυν).— Kretako hegoaldeko erdialdeko hiria.
- Gurdia** (Ἄμαξαν).— Hartz konstelazioaren izengoitia.
- Hades** (Ἅδης).— Azpimunduko jainkoa.
- Halio** (Ἄλιός).— Altzino eta Areteren semea, eta Nausikaaren neba.
- Haliterses** (Ἀλιθέρσης).— Itakar igarlea, Mastorren semea eta Odiseoren zalea.
- Halosidne** (Ἀλοσύδνης).— Anfitriteren izengoitia.
- Harmonia** (Ἀρμονία).— Ikusi **Ino** sarrera.
- Harpiak** (Ἄρπυιαι).— Taumasen eta Elektra itsas ninfaren alabak.
- Hartza** (Ἄρκτον).— Ursa Maior konstelazioa.
- Hebe** (Ἥβη).— Zeus eta Heraren alaba, eta Heraklesen emaztea.
- Hefesto** (Ἥφαιστος).— Zeus eta Heraren semea, suaren eta burdinolen jainkoa, eta Afroditaren senarra.
- Hektor** (Ἑκτωρ).— Ikusi **Deifobo** sarrera.
- Hekuba** (Ἑκάβη).— Ikusi **Deifobo** sarrera.
- Helade** (Ἑλλάς).— Greziako erdialdeko probintziak izendatzeko erabilitako izena.

**Helena** (Ἑλένη).— Zeus eta Ledaren alaba, Menelaoren emaztea. Parisen indarrez harrapatu zuen, eta harrapatze horrek sortarazi zuen Troiako Gudua. Gero, Espartan bizi izan zen bere senarrarekin.

**Helesponto** (Ἑλλήσποντος).— Europa eta Asiaren artean kokatutako itsasartea da. Egeo itsasoa, Marmara itsasoa eta bere uhartedia lotzen ditu.

**Helios** (Ἥλιος).— Ikusi **Eguzkia** sarrera.

**Hera** (Ἥρα).— Zeusen arreba eta emaztea; ezkontzaren jainkosa ere bai.

**Herakles** (Ἡρακλῆς).— Gizuren erdi-jainkotiar bat zen, Zeus eta Alkmenaren semea, eta bere indar ezohikoagatik ezaguna.

**Heraklion** (Ἡράκλειον).— Ikusi **Dia** sarrera.

**Hermes** (Ἑρμῆς).— Zeus eta Maiaren semea, jainko-jainkosen mezularia.

**Hermione** (Ἑρμιόνη).— Menelao eta Helenaren alaba bakarra.

**Herrena** (Ἄμφιγυήεις).— Hefestoren izengoitia.

**Hiperea** (Ἵπερείη).— Feaziarren lehenengo lurraldea, Eskeriara aldatu aurretik.

**Hiperesia** (Ἵπερησία).— Egira hiriaren antzinako izena.

**Hiperion** (Ἵπερίων).— Eguzkiaren eta Egunsentiaren aita.

**Hipodamia** (Ἴπποδάμεια).— Peneloperen jopu emea.

**Hipotes** (Ἴππότης).— Ikusi **Eolo** sarrera.

**Hiszila** (Ἴσκιλλα).— Ikusi **Ifimedia** sarrera.

**Idomeneo** (Ἰδομενεύς).— Kretako erregea.

**Idotea** (Εἰδοθέα).— Itsas jainkosa, Proteoren alaba.

**Ifigenia** (Ἴφιγένεια).— Ikusi **Agamemnon** sarrera.

**Ifikles** (Ἴφικλῆς).— Filazeko erregea.

**Ifiloke** (Ἴφιλοκε).— Ikusi **Alektor** sarrera.

**Ifimedia** (Ἴφιμέδεια).— Triops eta Hiszilaren alaba, eta Efialtesen ama.

**Ifito** (Ίφιτος).— Ekaliako errege Euritoren semea. Heraklesekin hil zuen.

**Iftima** (Ίφθίμη).— Ikarioren alaba, Eumeloren emaztea eta Peneloperen ahizpa.

**Ikario** (Ίκάριος).— Peneloperen aita.

**Ikmalio** (Ίκμάλιος).— Eskulangilea. Peneloperen aulkia egin zuen.

**Ilion** (Ίλιον).— Dardanoren Ilo semearen izeneko hiria, Troia gisa ezaguna.

**Ilitia** (Εὐλείθυια).— Zeus eta Heraren alaba.

**Ilo** (Ίλος).— 1) Efirako Mermeroren semea. 2) Dardanoren semea, Ilionen fundatzailea.

Inako (Ίναχος).— Ikusi **Mizene** sarrera.

**Ino** (Ίνώ).— Kadmo eta Harmoniaren alaba, Leukotea gisa ere ezaguna. Leukotea legez lagundu zuen Odiseo.

**Inor Ez** (Οὐτίς).— Odiseok erabilitako izenordea, ziklopea atzipetzeko.

**Iolko** (Ίωλόκος).— Tesaliako itsas portua.

**Iro** (Ίρος).— Ikusi **Arneo** sarrera.

**Ismaro** (Ίσμαρος).— Samotrazia uharteko iparraldeko traziar itsasertzeko ardo-eskualdea.

**Itaka** (Ίθάκη).— Odiseoren jaiolekua; uhartea.

**Itako** (Ίθακος).— Ninfen iturriaren hiru egileetako bat. Iturria Itakan zegoen.

**Itilo** (Ίτυλος).— Zeto eta Aedonen alaba. Aedonekin nahi barik hil zuen.

**Itsaso Jonikoa** (Ίόνιο Πέλαγος).— Ikusi **Samos** sarrera.

Ixion (Ίξίων).— Ikusi **Piritoo** sarrera.

**Japeto** (Ίαπετός).— Ikusi **Atlas** sarrera.

**Jardano** (Ίάρδανος).— Kretako Zidoniako ibaia.

**Jasion** (Ἰασίων).— Titan bat.

**Jaso** (Ἰάσος).— 1) Orkomenoko erregea. 2) Zipreko erregea, Dmetorren aita.

**Jason** (Ἰάσων).— Esonen semea, argonauten aitzindaria.

**Jokasta** (Ἰοκάστη).— Ikusi **Edipo** sarrera.

**Kadmo** (Κάδμος).— Tebasen fundatzailea.

**Kalipso** (Καλυψώ).— Ninfa, Atlasen alaba eta Oigia uharteko erregeina. Zeusek agindu zion arte, Odiseo atxilo eduki zuen.

**Kaltzis** (Χαλκίς).— Greziako mendebaldeko hiria.

**Kanaze** (Κανάκη).— Ikusi **Aloeo** sarrera.

**Karibdis** (Χάρυβδις).— Ama Lurraren eta Poseidonen alaba beldurgarria. Meseniako ur-golkoan handik igarotzen ziren ontziak irentsi ohi zituen.

**Kariteak** (Χάριτες).— Edertasunaren jainkosak, Eurinome eta Zeusen alabak.

**Kasandra** (Κασσάνδρα).— Priamo eta Hekubaren alaba. Klitemnestrak hil zuen. Apoloren madarikazio hau zuen: berak egia esan baina inork sine-tsiko ez ziona.

**Kastor** (Κάστωρ).— 1) Zeus eta Ledaren semea, eta Poluxen anaia. 2) Itxurazko kretatar bat; Odiseok itxurak egin zituen haren semea zelakoan.

**Kios** (Χίος).— Greziaren kostaldeko uhartea. Egeo itsasoan dago.

**Klimene** (Κλυμένη).— Ifikloren ama.

**Klimeno** (Κλύμενος).— Nestorren emazte Euridizeren aita.

**Klitemnestra** (Κλυταιμίστρα).— Agamemnonen emaztea, Tindaro eta Ledaren alaba, eta Helenaren ahizpa.

**Klitio** (Κλυτίος).— Itakar gizona eta Pireoren aita.

**Klito** (Κλείτος).— Mantioren semea.

**Klitoneo** (Κλυτόνης).— Altzinooren semea.

**Kloris** (Χλωρίς).— Neleoren emaztea.

**Knosos** (Κνωσός).— Kreta minoikoaren hiri nagusia.

**Kozito** (Κωκυτός).— Hadesko ibaia, Arranguraren Ibai izengoitkoa.

**Kratais** (Κράταιν).— Eszilaren ama.

**Kreon** (Κρέων).— Tebasko erregea eta Megararen aita.

**Kreta** (Κρήτη).— Uhartea, zibilizazio minoikoaren sehaska.

**Kreteo** (Κρηθεύς).— Iolkoko errege fundatzailea.

**Kromio** (Χρόμιος).— Neleo eta Klorisen semea.

**Kronos** (Κρόνος).— Zeusen aita.

**Krunos** (Κρουνός).— Greziako mendebaldeko itsasertzeko aurkintza.

**Ktesio** (Κτήσιος).— Siriako erregea eta Eumeoren aita.

**Ktesipo** (Κτήσιππος).— Peneloperen samostar ezkongagia, eta Politerse-  
sen semea.

**Ktimene** (Κτιμένη).— Laertes eta Antiklearen alabarik gazteena, Odi-  
seoren arreba.

**Laertes** (Λαέρτης).— Artzesioren semea eta Odiseoren aita.

**Laertzes** (Λαέρκες).— Pilosko urregina.

Laios (Λαΐος).— Ikusi **Edipo** sarrera.

**Lakonia** (Λακωνία).— Ikusi **Esparta** sarrera.

**Lamos** (Λάμος).— Lestrigoniarren erregea.

**Lanpetia** (Λαμπετία).— Ninfa; Hiperion eta Neeraren alaba.

**Lanpo** (Λάμπος).— Egunsentiaren gurdiko zaldietako bat.

**Laodamas** (Λαοδάμας).— Altzinooren semea.

**Laomedon** (Λαομέδων).— Troiako erregea izan zen. Ilo eta Euridizeren  
semea.

Lapitestarra (Λαπίθαι).— Ikusi **Piritoo** sarrera.

**Lazedemonia** (Λακεδαιμονία).— Espartako erresuma. Menelao da haren agintaria.

**Leda** (Λήδα).— Testioren alaba, Espartako errege Tindaroren emaztea, eta Kastor eta Poluxen ama.

**Lemnos** (Λήμνος).— Egeo iparraldeko uhartea, Hefestoren etxea.

**Leodes** (Λειώδης).— Peneloperen ezkongaietako bat, Enoporen semea.

**Leokrito** (Λειώκριτος).— Peneloperen ezkongaietako bat, Ebenorren semea.

**Lesbos** (Λέσβος).— Egeo ekialdeko uhartea.

**Lestrigonia** (Λαιστρυγόνια).— Lestrigoniarren herria.

Lestrigoniarrak (Λαιστρυγόνες).— Ikusi **Antifates** sarreraren 1. adiera.

**Leto** (Λητώ).— Zeo eta Febe titanen alaba; Zeusekin Apolo eta Artemisaren ama.

**Leukada** (Λευκάδα).— Uhartea.

Leukotea (Λευκοθέα).— Ikusi **Ino** sarrera.

**Libia** (Λιβύη).— Afrika iparraldeko herrialdea.

**Lizia** (Λυκία).— Ikusi **Solimo** sarrera. Lizia, gaur egun, Turkian dago.

Lokris (Λοκρίς).— Ikusi **Ajax** sarreraren 2. adiera. Antzinateko Greziako eskualdea.

**Lotojalea** (Λωτοφάγος).— Libiako uharte bateko biztanlea.

**Lurra** [Gea edo Gaia (Γαῖα/Γῆ)].— Lurraren emankortasuna irudikatzen du, eta jainko-jainkosen eta munstroen ama da.

**Maia** (Μαῖα).— Pleiadeetako bat, Atlasen eta Pleione ozeanidearen alaba, eta Hermesen ama.

**Malea** (Μαλέα).— Peloponesoko lurmuturra.



**Mantio** (Μάντιος).— Melanporen semea, Polifidesen aita eta Teoklimenoren aitona.

**Maraton** (Μαραθών).— Atikaren ekialdeko itsasertzeko hiria eta laugunea.

**Marmara** (Μαρμαρᾶ).— Ikusi **Helesponto** sarrera.

**Maron** (Μάρων).— Apoloren apaiza Ismaron.

Mastor (Μάστωρ).— Ikusi **Haliterses** sarrera.

**Medon** (Μέδων).— Hots-egilea, Peneloperen aldekoa.

**Megapentes** (Μεγαπένθης).— Menelaok jopu eme batekin izandako semea.

**Megara** (Μέγαρα).— 1) Alkmenaren eta Tebasko errege Kreonen alaba.  
2) Atikaren inguruetako hiria.

**Melaneo** (Μελανεύς).— Anfimedonen aita, Itakako handikia.

**Melanpo** (Μελάμπους).— Greziar igarle eta petrikiloa.

**Melantio** (Μελάνθιος).— Ahuntzaina, Dolioren semea eta ezkongaien aldekoa.

**Melanto** (Μελανθώ).— Melantioren arreba, Peneloperen zerbitzaria eta berau traditzen duena.

**Memnon** (Μέμνων).— Titon eta Egunsentiaren semea.

**Menelao** (Μενέλαος).— Espartako erregea eta Helenaren senarra.

Menezio (Μενοίτιος).— Ikusi **Patroklo** sarrera.

**Mentes** (Μέντης).— Tafostarren erregea eta Odiseoren laguna.

**Mentor** (Μέντωρ).— Odiseoren itakar laguna.

**Mera** (Μαϊράν).— Artemisaren zerbitzaria.

Mermero (Μερμερος).— Ikusi **Ilo** sarreraren 1. adiera.

Merope (Μερόπη).— Ikusi **Pandareo** sarrera.

**Mesaulio** (Μεσαύλιος).— Eumeoren morroia.

**Mesenia** (Μεσσηνία).— Greziako hego-mendebaldeko eskualdea.

**Mimas** (Μίμας).— Kiosen aurreko penintsula handia; Nestorren itsasontziek errefusatutako ibilbideetako bat.

Minias (Μινύας).— Ikusi **Orkomeno** sarrera.

Miniastarra (Μινύες).— Ikusi **Orkomeno** sarrera.

**Minos** (Μίνως).— Kretako erregea eta Zeusen semea.

**Mizenas** (Μυκῆναι).— Antzinateko Greziako mendebaldeko gotorlekua. Hango biztanleek euren buruari akaiar zeritzoten.

**Mizene** (Μυκίγη).— Inako ibai-jainkoaren alaba.

**Moirak** (Μοῖραι).— Jainkosak, gizaki bakoitzaren patuaren irudiak.

**Mulio** (Μούλιος).— Anfinomoren ezkutaria, ezkongaien zerbitzaria.

**Musa** (Μούσα).— Musak ziren musika, olerkigintza eta beste hainbat arte eta zientziaren jainkosak.

**Naiadeak** (Ναιάδες).— Ur gezetako —iturri, putzu, iturburu eta errekas-toetako— ninfak ziren, eta eurak bizi ziren ur ibilguaren jainkosak ziren.

**Naubolides** (Ναυβολίδης).— Eurialoren aita, feaziarra.

**Nausikaa** (Ναυσικάα).— Feaziarren errege Altzinooren eta Areteren alaba.

**Nausitoo** (Ναυσίθοος).— Altzinooren aita. Berak eroan zituen feaziarrak Eskeriara.

**Nauteo** (Ναυτεύς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen.

**Neera** (Νέαῖρα).— Faetusa eta Lanpetia ninfen ama. Eguzkiarekin izan zituen alabok.

**Neio** (Νηίω).— Itakako mendi garaia.

**Neleo** (Νηλεύς).— Poseidonen eta Tiro ninfaren semea, eta Pilosko erregea.

**Neoptolemo** (Νεοπτόλεμος).— Akilesen semea eta Hermioneren senarra.

**Neriko** (Νήρικος).— Greziako itsasertzeko hiria.

**Nerito** (Νήριτος).— 1) Ninfen iturriaren hiru egileetako bat; iturria Itakan zegoen. 2) Itakako mendia.

**Nestor** (Νέστωρ).— Pilosko erregea eta Neleoren semea. Telemako ikustera doa, hau bere aitaren albiste bila dabilenean.

**Ninfa** (Νύμφα).— Ninfak jainkosa txikiak ziren, iturri, ibai, baso edo mendietan bizi zirenak. Ninfek zelaien, basoen eta, oro har, izadiaren eman-kortasuna irudikatzen zuten.

**Niobe** (Νιόβη).— Ikusi **Tantalo** sarrera.

**Niso** (Νίσου).— Megarako erregea.

**Noemon** (Νοήμων).— Fronioren semea, itakarra.

**Noragabeak** (Πλαγκτᾶς).— Harkaitz multzo bat. Itsasoak bortizki jotzen zuen haien artean, eta *Argo* itsasontziak bakarrik lortu zuen eurak igarotzea.

**Noto** (Νότος).— Hego-haizea.

**Odiseo** (Ὀδυσσεὺς).— Laertesaren semea, Artzesioren iloba, Peneloperen senarra, Telemakoren aita eta *Odisearen* protagonista.

**Ogigia** (Ὠγυγίη).— Kalipso ninfaren uhartea.

**Oikles** (Οἰκλῆς).— Anfaraoren aita.

Oileo (Ὀϊλεύς).— Ikusi **Ajax** sarreraren 2. adiera.

**Okialo** (Ὠκύαλος).— Feziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen.

**Olinpo** (Ὀλυμπος).— Greziako mendirik garaiena, Tesaliakoa. Hemen-txe bizi ziren jainko-jainkosak.

Onetor (Ὠνήτωρ).— Ikusi **Frontis** sarrera.

**Ops** (Ὠψ)<sup>15</sup>.— Pisenorren semea eta Euriklearen aita.

**Orestes** (Ὀρέστης).— Agamemnon eta Klitemnestraren semea. Bere aitaren hilketaren mendekatu zuen, ama eta honen maitale Egisto hilez.

**Orion** (Ὀρίων).— Hiru izaki: 1) Egunsentiaren maitale bat, Artemisak hil zuena. 2) Ehiztari erraldoia, bere garaiko gizasmerik garaienetako bat. 3) Izar-mordoa, Hartza beti zelatan daukana.

**Oritia** (Ὀρείθια).— Ikusi **Erekteo** sarrera.

**Orkomeno** (Ὀρχομένο).— Miniastarren hiria, Fozidan, Greziako erdialdeko ekialdean. Minias erregeak fundatu zuen, Rodasko Apolonioren araberak.

**Ortigia** (Ὀρτυγία).— Delostik hur dagoen uhartetxoa; bertan erditu zuten Letok Artemisa eta Apolo.

**Ortiloko** (Ὀρτίλοχος).— Dioklesen aita, meseniarra.

**Ortsiloko** (Ὀρσίλοχος).— Idomeneo Kretako erregearen semea.

**Ortzia** (Ὀὐρανός).— Zerua: Urano.

**Osa** (Ὅσσα).— Tesaliako mendia.

**Ospea** (Ὅσσα).— Zeusen pertsonifikazioa, mezularia.

**Oto** (Ὠτος).— Ifimedia eta Poseidonen seme erraldoia, eta Efiatesen anaia.

**Ozeanidea** (Ὠκεανίς).— Ikusi **Estix** sarrera.

**Ozeano** (Ὠκεανός).— Ortziaren semea eta Tetisen senarra. Homeroren arabera, lurra besarkatzen duen ibaia da, eta honetatik jalgitzen dira gero itsasoko tirain guztiak.

**Pafos** (Πάφος).— Zipreko hiria, Afroditar jauretsia.

<sup>15</sup> Euskaltzaindiaren 82. arauan, «Grekoa/Latina»ren zutabearen «Ops» ageri da Erromako mitologia-ri dagokion emankortasunaren jainkosa aipatzeko. Greziako mitologian, berriz, *Odisean* ageri den pertsonaiaren greziera klasikoko izena «Ὠψ» da. Halandaze, arau hori sarrera honekin osa daiteke.

**Palas Atena**<sup>16</sup> (Παλλάς Ἀθήνη).— Zeusen alaba, Atenasen zaindari eta oro har hiri guztiena; emakume txit ederra, lantzaz, kaskoz eta ezkutuz jantzia irudikatu ohi dena. Odiseori sarri lagun egiten dio sorterrira itzul dadin.

**Pandareo** (Πανδάρεως).— Merope eta Klimeneren semea, eta Aedonen aita.

Pandion (Πανδίων).— Ikusi **Erekteo** sarrera.

**Panopeo** (Πανοπέυς).— Fozidako hiri eta eskualdea.

**Paris** (Πάρις).— Ikusi **Deifobo** eta **Helena** sarrerak.

**Parnaso** (Παρνασσός).— Fozidako mendia, Apolori eta musei jauretsia.

**Pasifae** (Πασιφάη).— Ikusi **Ariadna** sarrera.

**Patroklo** (Πάτροκλος).— Troiako Guduko gizurena, Menezioeren semea eta Akilesen lagun mina.

**Peleo** (Πηλεύς).— Tetisen senarra, eta berarekin Akilesen aita.

**Pelias** (Πελίας).— Iolkoko erregea, Poseidon eta Tiroren semea, eta Neleoren anaia.

**Pelion** (Πήλιον).— Pilion izenez ere bai ezaguna; Tesaliako hego-ekialdeko mendia, Greziako erdialdean.

**Pelope** (Πέλοψ).— Ikusi **Atreo** eta **Tantalo** sarrerak.

Pelopria (Πελόπεια).— Ikusi **Egisto** sarrera.

**Peloponeso** (Πελοπόννησος).— Ikusi **Asopo** sarrera.

**Penelope** (Πηνελόπη).— Odiseoren emaztea.

Peneo (Πηνειός).— Ikusi **Elide** sarrera.

**Peon** (Παιών).— Osagileen jainkoa.

**Peribea** (Περίβοια).— Eurimedonen alaba.

<sup>16</sup> Ikusi 12. oin-oharra.

**Periklimeno** (Περικλύμενος).— Neleo eta Klorisen semea.

**Perimedes** (Περιμήδης).— Odiseoren bidaideetako bat, Troiatik Itakara.

**Pero** (Πηρώ).— Neleo eta Klorisen alaba.

**Pertse** (Πέρση).— Ozeanideetako bat, Ozeanoren alaba eta Eguzkiaren emaztea.

**Pertsefone** (Περσεφόνη).— Zeus eta Demeterren alaba, eta Hadesen emaztea.

**Pertseo** (Περσεύς).— Nestorren semea.

**Pieria** (Πιερία).— Greziako eskualde menditsua. Eskualde horretan dago Olinpo mendia.

**Pilos** (Πύλος).— Nestorren erresumako hiriburua, Mesenian, Peloponesotik hego-mendebaldera.

**Pireo** (Πείραιος).— Telemakoren itakar laguna, Klitioren semea.

**Piriflegeton** (Πυριφλεγέθων).— Hadesko suzko ibaia, Akeronen ibaia-darra eta Kozitoren semea.

**Piritoo** (Πειρίθως).— Ixionen semea, Tesaliako lapitestarren erregea, Hipodamiaren senarra eta Teseoren laguna.

**Pisandro** (Πείσανδρος).— Peneloperen ezkongaietako bat, Poliktorren semea. Filetiok hil zuen.

**Pisenor** (Πεισήνωρ).— 1) Opsen aita. 2) Itakako batzarraren mezularia. 3) Peneloperen ezkongaietako bat, samostarra.

**Pisistrato** (Πεισίστρατος).— Nestor eta Euridizeren semea. Telemakori Espartako joan-etorrian lagun egin zion.

**Piton** (Πύθων).— Apoloren jauretxea, Parnaso oinean. Delfosen antzinako izena; Apolok han erail zuen Piton sugeagatik horrela deitua.

**Pleiadeak** (Πλειάδες).— Zezen konstelazioaren izar multzoa. Zazpi ziren.

**Pleione** (Πληϊόνη).— Ikusi **Maia** sarrera.

**Poias** (Ποιάν).— Filoktetesen aita.

**Polibo** (Πόλυβος).— Peneloperen ezkongaietako bat, Eurimakoren aita. Eumeok hil zuen.

**Polidamna** (Πολύδαμνα).— Egiptoar andrazkoa, Tonen emaztea.

**Polideuzes** (Πολυδεύκης).— Polux izenez ere bai ezaguna, Zeus eta Ledaren seme jainkotiarra.

**Polifemo** (Πολύφημος).— Poseidonen eta Toosa ninfaren semea; ziklopeetako bat; Siziliako uhartean bizi ziren erraldoietakoa, bekoki erdian begi biribil bat zuena.

**Polifides** (Πολυφειδης).— Apoloren apaiza, Mantioren semea eta Teoklimenoren aita.

**Polikasta** (Πολυκάστη).— Nestor eta Euridizeren alabarik gazteena. Berak bainatzen du Telemako.

**Poliktor** (Πολύκτωρ).— Ninfen iturriaren hiru egileetako bat. Iturria Itakan zegoen.

**Polineo** (Πολυνήος).— Anfialoren aita.

Politeres (Πολυθήρησης).— Ikusi **Ktesipo** sarrera.

**Polites** (Πολίτης).— Odiseoren bidaidea.

Polux (Πολυδεύκης).— Ikusi **Kastor** sarrera.

**Ponteo** (Ποντεύς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan parte hartu zuen.

**Ponto** (Πόντος).— Ikusi **Zeto** sarrera.

**Ponto Euxino** (Εὐξεινος Πόντος).— Ikusi **Trazia** sarrera.

**Pontonoo** (Ποντόνοε).— Altzinooren mezulari eta ezkutaria.

**Poseidon** (Ποσειδών).— Kronos eta Rearen semea, Zeusen anaia. Itsasoaren eta lurrikaren jainkoa da. Odiseoren aurka dihardu, honek haren seme Polifemo itsutu zuelako.

**Pramnio** (Πραμνείω).— Izen honekin ezaguna zen tokiko ardo beltz gotorra. Autore batzuentzat Lesbos uhartean zegoen, eta beste batzuentzat Esmirnan, Asia Txikian.

**Priamo** (Πριάμος).— Troiako erregea, Hektor eta Parisen aita.

**Primneo** (Πρυμνέυς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen.

**Prokris** (Πρόκρις).— Erekteo Atenasko erregearen alaba.

**Proreo** (Πρωρεύς).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan esku hartu zuen.

**Proteo** (Πρωτεύς).— Itsas jainkotasuna, Idotearen aita, itsas txakurren artean bizi den agure zaharra. Itxura bereziak hartzen ditu bere etsaiengandik ihes egiteko.

**Psiria** (Ψυρία).— Uhartea, Kiosko mendebaldean.

**Radamanto** (Ραδάμανθυς).— Zeus eta Europaren semea, Minosen anaia, Kretako erregea.

**Rea** (Ρέα).— Ikusi **Demeter** eta **Poseidon** sarrerak.

**Reitro** (Ρεῖθρον).— Itakako portua.

**Rexenor** (Ρηξήνορ).— Nausitooren semea eta Areteren aita.

**Salmoneo** (Σαλμωνεύς).— Eolo eta Enareteren semea, Tiroren aita eta Salmoniako erregea.

**Samos** (Σάμος).— Itsaso Jonikoko uhartea, Itakatik hur.

**Samotrazia** (Σαμοθράκη).— Ikusi **Ismaro** sarrera.

**Sidon** (Σιδών).— Feniziarren itsasertzeko hiria, Libanon.

**Sikania** (Σικανία).— Mediterraneoko uhartea, Sizilia. Odiseok Sikania deritzo.

**Sirena** (Σειρήν).— Sirenak izaki mitologikoak ziren, Zirtzeren izarotik hurreko uharte baten bizi zirenak. Euren ahots zoli gozoz itsasoz zebiltzanak liluratu ohi zituzten. Txori itxura dute, emakumezkoa buruz.



**Sisifo** (Σίσυφος).— Eoloren semea eta Glaukoren aita. Hilkorretatik maltzurrena zela esan ohi zuten antzinateko greziarrek.

**Sizilia** (Σικελία).— Mediterraneoko uhartera. Odiseok Sikania deritzo.

**Solimo** (Σολύμων).— Liziako mendikatea, Asia Txikian.

**Sunio** (Σούνιον).— Atenasko hego-ekialdeko lurmuturra, Atikan.

**Tafos** (Τάφος).— Itsaso Jonikoko uhartera.

Tafostarra (Τάφιοι).— Ekinada uharteetako Tafos uharteko biztanlea. Ikusi **Mentes** sarrera.

**Taigeto** (Ταῦγετος).— Espartako mendikatea, Peloponesoko hegoaldean.

**Tanato** (Θάνατος).— Heriotzaren pertsonifikazioa. Erromatar mitologian Parka legez ezagutzen da.

**Tantalo** (Τάνταλος).— Frigiako erregea, Zeusen semea, eta Pelope eta Nioberen aita. Zeusek beti-betiko zigorra leporatu zion, jainko-jainkosei eta hilkorrei hainbat iruzur eta muzin egin eta gero.

Taumas (Θαύμας).— Ikusi **Harpiak** sarrera.

**Tebas** (Θήβαι).— 1) Egiptoko hiria, Menelaok bisitatu. 2) Beoziako hiria, Kadmok fundatutakoa.

**Telamon** (Τελαμών).— Eginako erregea, Eakoren semea, Heraklesen laguna eta Ajax Handiaren aita.

Telefo (Τήλεφος).— Ikusi **Euripilo** sarrera.

**Telemako** (Τηλέμαχος).— Odiseo eta Peneloperen semea. Beraren izenak «urrun borrokatzen dena» adierazi nahi du, berau eta aita beti erasopean bizi izan zirelako. *Odisearen* poeman lehenengo lau liburuetan agertzen zaigu, eta gero, aita itzulitakoan, ezkongaien hilketan adoretu egiten du borrokan. Ez da aita baizen maltzurra, baina seme leial eta bihozbera da.

**Telemo** (Τήλεμος).— Ziklopeen iragarlea.

**Telepilo** (Τηλέπυλος).— Lestrigoniarren portua.

**Temesa** (Τεμέση).— Grezia Handiko lekua, Tirreniar itsasoan. Ospetsua izan zen haren kobre-meatzeengatik.

**Temis** (Θεμης).— Justizia eta zuzenbidearen jainkosa.

**Tenedos** (Τένεδος).— Egeo itsasoko uhartea, Troadeko itsasertzari aurrez aurre.

**Teoklimeno** (Θεοκλύμενος).— Igarlea, Polifidesen semea, Apoloren apaiza.

**Tesalia** (Θεσσαλία).— Ikusi **Enipeo** sarrera.

**Teseo** (Θησεύς).— Atenasko erregea, Egeo eta Etraren semea.

**Tesprotia** (Θεσπρωτία).— Antzinateko Greziako eskualdea. Ikusi **Fidon** sarrera.

**Testio** (Θέστιος).— Ikusi **Leda** sarrera.

**Tetis** (Τηθύς).— Itsas jainkosa, Ozeanoren alaba, Peleoren emaztea eta Akilesen ama.

**Tideo** (Τυδεύς).— Diomedesen aita, Troiako Guduko eoliar gizurena. *Tebasen aurkako Zaxpietako bat* izan zen.

**Tiestes** (Θυέστης).— Peloperen semea, Atreoren anaia eta Egistoren aita.

**Tindaro** (Τυνδάρεως).— Espartako erregea eta Ledaren senarra.

**Tiresias** (Τειρεσίας).— Tebasko igarle itsua.

**Tiro** (Τυρώ).— Poseidonekin izan zen Pelias eta Neleoren ama.

**Titan** (Τιτάν).— Ikusi **Atlas** sarrera.

**Titio** (Τιτυός).— Erraldoietako bat, Zeus eta Gearen semea.

**Titono** (Τιθωνός).— Laomedonen semea, Eosen (Egunsentiaren) senarra eta Memnonen aita.

**Toas** (Θόας).— Andremonen semea.

**Ton** (Θῶν).— Egiptoarra, Polidamnaren senarra.

**Toon** (Θόων).— Feaziarra. Odiseoren aldeko jokoetan parte hartu zuen.

**Toosa** (Θόωσα).— Itsas ninfetako bat zen, Fortzis eta Zetoren alaba, gorgonen ahizpa eta Polifemoren ama. Poseidon itsas jainkoaren maitaleetako bat izan zen, eta berarekin Polifemo ziklopea izan zuen.

**Trasimedes** (Θρασυμήδης).— Nestorren semea.

**Trazia** (Θράκη).— Itsaso Beltzaren eta Egeoko ipar-ekialdearen herrialde mugakidea. Itsaso Beltzaren antzinako izena Ponto Euxino zen.

**Trinazia** (Θρινακία).— Eguzkiaren uhartea; autore batzuen ustez, Sizilia.

Triops (Τρίωψ).— Ikusi **Ifimedia** sarrera.

**Tritogenia** (Τριτογένεια).— Palas Atenaren epitetoetako bat.

**Troade** (Τρώας).— Ikusi **Tenedos** sarrera.

**Troia** (Τροία).— Troade eskualdeko hiriburua. Gaur egungo Turkiako Hisarlik hirian zegoen. Bederatzi hiri agertu ziren, bata bestearen gain; gaur egun uste denez, zazpigarrena izan zen Troiako gudu-zelaia.

**Zante/Zazinto** (Ζάκυνθος).— Itsaso Jonikoko uhartea, gaurko Zante.

**Zefiro** (Ζέφυρος).— Mendebaldeko haizeen jainkoa.

**Zentauro** (Κένταυρος).— Gorputzaren erdia gizonarena eta beste erdia zaldiarena zituen izakia. Peliongo eta Arkadiako mendietan bizi zen.

Zeo (Κοῖος).— Ikusi **Leto** sarrera.

**Zeto** (Κητώ).— Gea eta Pontoren alaba. Uretako munstro izugarri bat zen.

**Zeus** (Ζεύς).— Kronos eta Rearen semea, Heraren senarra, ortziaren eta tximisten jainkoa, eta jainko-jainkosen eta gizakumeen aita. Berak darabiltza giza seme-alaben bizitzako gorabeherak, berak ematen dio bakoitzari zoriona edo zoritxarra. Geroa ezagun du, eta noizik behin hilkorrei iragar-tzen die etorkizun dena.

Zeuxipa (Ζευξίπη).— Ikusi **Erekteo** sarrera.

**Zezena** (ταῦρος).— Tauro. Ikusi **Pleiadeak** sarrera.

**Zidonia** (Κυδωνία).— Ikusi **Jardano** sarrera.

**Zikladeak** (Κυκλάδες).— Ikusi **Delos** sarrera.

**Ziklope** (Κύκλωψ).— Erraldoi begibakarren arraza.

**Zipre** (Κύπρος).— Mediterraneoko uhartea, meatzeetan ugari, tupikiz batez ere. Antzina, feniziarren hiri eta lurralde aberatsa izan zen; geroago greziarrek hartu zuten. Oso garrantzitsua izan zen Afrodita jainkosari han ematen zitzaion gurtza.

**Zirtze** (Κίρκη).— Magiaren jainkosa, Helios eta Pertseren alaba.

**Zitera** (Κυθήρεια).— Maleako lurmuturretik hur dagoen uhartea, Afroditari jauretsia.

**3. Exonomastikarako sailkatutako ekarpen-zerrenda.**— Zerrenda honetan azalduko dira egundaino Euskaltzaindiaren arau eta erabakietan ez dauden sarrerak. Zerrenda honek 7 azpizerrenda ditu.

Azpizerrenda bakoitzaren izenburuan azalduko da Euskaltzaindiaren zein arau osa daitekeen. Hori ez ezik, azpizerrenda bakoitzak 5 zutabe izango ditu: 1) Baturako forma; 2) Gaztelania; 3) Frantsesa; 4) Ingelesa, eta 5) Greziera klasiko forma.

### Hirugarren zerrenda

3.a) *Euskaltzaindiaren 70. arauari («Mundu zabaleko uharte nagusiak») erants dakizkiokeen 19 sarrerak:*

Baturako forma	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Greziera klasikoko forma
<b>Asteris</b>	Asteris	Astéris	Asteris	Ἀστερίς
<b>Delos</b>	Delos	Dèlos	Delos	Δήλος
<b>Dia</b>	Día	Diè	Dia	Δία

Baturako forma	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	Greziera klasikoko forma
Dulikio	Duliquio	Doulichion	Dulichium	Δουλιχίω
Eea	Eea	Aiaiè	Aeaea	Αιαία
Egina	Egina	Égine	Aegina	Αίγινα
Ekinada uharteak	Islas Equínadas	Îles Échinades	Echinades Islands	Ἐχινάδες νῆσοι
Eskeria	Esqueria	Schérie	Scheria	Σχερία
Esziro	Esciro	Scyros	Scyros	Σκύρος
Faros	Faro	Pharos	Pharos	Φάρος
Girea	Girea	Gyrées	Gyrae	Γυραίην
Lemnos	Lemnos	Lemnos	Lemnos	Λήμνος
Ogigia	Ogigia	Ogygie	Ogygia	Ὠγυγία
Ortigia	Ortigia	Ortygie	Ortygia	Ὀρτυγία
Psiria	Psiria	Psyria	Psyria	Ψυρία
Sikania	Sicania	Sicanie	Sicania	Σικανία
Tafos	Tafos	Taphos	Taphos	Τάφος
Tenedos	Ténédos	Ténédos	Tenedos	Τένεδος
